KIROLA: GORKA BIKUÑA ARKULARI OÑATIARRARI ELKARRIZKETA /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko otsailaren 27a

IV. urtea • 145. zkia

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

DAVE BIETER / BOISEKO ALKATEA

"AEBetan demokratek irabaztea ona izango da euskaldunendako" /7

Goienka2a

Txinako Medikuntza eta Akupuntura ikastaroa Arrasaten

AMAGOIA LASAGABASTER

1.500 sinadura bakea bultzatzeko

Elkarrik 1.500 sinadura batu gura ditu bihar, zapatuan, gure ibarrean, Bake Konferentziaren alde. Debagoieneko herri guztietan jarriko dituzte sinadurak batzeko mahaiak. Aramaion egubakoitz ilunkaran batuko dituzte sinadurak, eta gainontzeko herrietan zapatuan. Ekintza bera egingo dute Euskal Herri osoan, eta zapatukoarekin 80.000 sinadurara iritsi nahi du Elkarrik. Martxoan bukatuko da sinadura batzea. Argazkian, Elkarriko kide eta boluntarioen prentsaurrekoa. /4

ASTEKO GAIA: ADIN TXIKIKOENDAKO ETXEA

Delitugile gaztetxoendako zentroa Aramaion

Debagoiendar askok jakingo ez badu ere, Aramaion bada delituak egin dituzten adin txikikoendako hezkuntza etxe bat. Mendixola baserrian dago etxe hori, eta Mendixola Hezkuntza Zentroa dauka izena. Richard Vaquero erandioarra da Mendixola Hezkuntza Zentroko arduraduna eta Josean Morgado, berriz, hezitzaile soziofamiliarra. Biak hala biak Berriztu Hezkuntza Elkarteko kide dira. 1997an hasi zen Berriztu Aramaioko etxe hori kudeatzen. Izan ere, gazteen hezkuntza etxeak Justizia Sailarenak dira, baina zentroen kudeaketa beste elkarte batzuen eskuetan dago. Lehiaketa bidez esleituta, hain zuzen ere. Guztira, hamabi gazte hartzeko lekua dauka Mendixolak. Orain, hamar daude. Etxe horretako arduradunek ateak ireki dizkiote GOIENKARIAri. /2-3

Justizia euskalduntzeko eskatuko du EHEk bihar

Euskal Herrian Euskaraz taldeak manifestazioa deitu du biharko, zapatua, Bergaran, eta ibarreko hainbat gizarte eragile eta norbanakok bat egin dute deialdi horrekin. Justizia administrazioan euskarak jasaten duen "zapalketa" salatu nahi du Euskal Herrian Euskaraz taldeak. Gernikan eta Bergaran deitu ditu manifestazioak. Bergarakoa San Martin plazatik abiatuko da, 18:00etan.

Justizia administrazioan normalizazio prozesua bideratzeko, sei helburu finkatu ditu EHE taldeak, eta horiek aintzat hartzeko eskatu du. /4

BERGARA

Kolektoreko lanak direla-eta, aldaketak zirkulazioan

Ur zikinen kolektorea jartzeko lanek aurrera segitzen dute Bergaran. Lanak direla-eta, Torrekua eta San Antonio arteko errepide zatia itxi egin zuten aurreko astean. Hori dela-eta, Mintegi kalea bi noranzkoa izango da eta San Antonio aldetik herrira datozen autoek Arrizuritik jo beharko dute saihesbidera. /6

LEIZE GAZTE MODA

LEIZE

Hemen dira udaberria eta uda!

Zatoz, estreinatu dugu denboraldia

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA

Fraiskozuri 5 BERGARA

Olarte 5 ARRASATE

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a

Mendixola zentroa: arauak hausten dituzten gazteendako

Delituak egiten dituzten adin txikikoendako hezkuntza zentroa

UBANE MADERA

Richard Vaquero erandioarra da Mendixola Hezkuntza Zentroko arduraduna, urriaz geroztik. Josean Morgado, berriz, hezitzaile soziofamiliarra da, urtarrilaz geroztik. Baina, urrira arte bera izan zen zentroko arduraduna bi urtez. Biak hala biak Berriztu Hezkuntza Elkarteko kide dira. 1997an hasi zen Berriztu Aramaioko zentroa kudeatzen. Izan ere, gazteen hezkuntza zentroak Justizia Sailarenak dira, baina zentroen kudeaketa beste elkarte batzuen eskuetan dago, lehiaketa bidez esleituta.

ZER DA BERRIZTU?

1992an hasi zen arazo sozialak zituzten gazteekin lanean. EAEn bost zentro kudeatzen ditu.

Berrizturen aurreneko zentroa Ortuellakoa izan zen, Miguel Angel Remirez, izen bereko irakaslearen omenez. Joseanek kontatu digu istorioa: "Orain dela 30 urte, gazteak zigortzeko zentzategietara bidaltzen zituzten. Kartzela txikiak ziren. Eliza zentzategiko gazteak zaintzen hasi zen. Remirez Euskadira etorri zen, eta hori lantzeko elkartea sortu zuen. Handik etorri zen Berriztu. Harrezkero profesionalizatzen joan gara… Orain oso ondo prestatuta gaude"

ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Guztira, 12 gazte hartzeko lekua dauka Mendixolak. Orain, hamar daude. Gure berba-lagunek diote gazte gutxi egotea oso garrantzitsua dela. Tratamendu espezializatuagoa ematen diete, bananbanan. Zenbat eta jende gutxiago, are eta kalitate hobea. EAEn erroldatuta dauden gazteak hartzen dituzte, betiere adin txikikoen epaitegiak erabakitzen badu halako zentro batera joan beharra duela. Joseanek dio: "Denetatik izan dugu: kolonbiarrak, errumaniarrak, aljeriarrak, nikaraguarrak, portugaldarrak…"

INSTALAZIOAK ETA LANGILEAK

Instalazio ugari dituzte Mendixolan. Etxeaz gain, lehenengo ikusten dena da harrizko futbol-zelaia, gazteek kirola egin dezaten. Handik gertu ortua eta negutegia dute. "Ortuko produktuak gure artean komertzializatzen ditugu, Aramaioko azokan… Gauza bera egiten dugu aroztegian landutakoekin". Beraz, aroztegia ere badute eskulanak egiteko, baita bestelako lantegiak ere, ikasgela, ludoteka, barruko gimnasio txiki bat eta beste zenbait areto. Eta horrez gainera jangela, batzarrak egiteko gelak eta bestelako zerbitzuak.

ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Goian ezkerrean, harrizko futbol-zelaia ikus dezakegu, eta eskuman eskolak emateko erabiltzen duten ikasgela.
Behean, eskuman, eskulanak egiteko erabiltzen duten lantegia eta binakako logela bat ikus ditzakegu.

Langileei dagokienez, gazteak baino gehiago dira: 12 hezitzaile (bata gauekoa), zentroko koordinatzailea (eguneroko bizimodua antolatzen duena), gainbegiralea, hezitzaile soziofamiliarra, ikasgelako irakaslea, lantegiko irakaslea, sukaldaria eta administrari-garbitzaile bat.

"Kontuan hartu behar da, lehen esandako moduan, oso modu espezializatuan egiten dugula lan; esparru guztietan barneratzen gara: lan esparruan, familiaren esparruan, hezkuntzan…arlo bakoitzerako arduradun bat daukagu. Horrez gainera, gazte bakoitzak tutore bat dauka. Tutore horrek orientatu egiten ditu, motibatu…Gaztearendako erreferentzia puntua da tutorea".

JARDUNBIDEA

Gazteekin lan egiteko moduarengatik galdegin diegu Mendixolakoei. Zera kontatu digute: "Gaztea zentrora heltzen denean, lehenengo harrerarekin lotutako ekimenak egiten ditugu: gaztearekin egon eta zela datorren ikusi: batzuetan beldurtuta datoz, bestetan haserre… Hala, gaztearen egoera aztertu eta gero, zentroaren funtzionamendua esplikatzen diogu, arauak… Modu horretan, gaztea kokatzen hasten da. Horren ostean hasten da gaztea ekintzetan parte hartzen; hasteko, ikasgelan eta lantegian".

"Bitarte horretan, behatze prozesu bati ekin diogu, gaztearen bizitzaren esparru guztietan. Eta behaketa egin ostean, kasuaren balorazioa egiten dugu. Hilabete-edo pasatu da. Batzarra egiten dugu orduan. Ikusitakoaren arabera, eta barruan egoteko ezarri dioten denboraren arabera, jardunbidea zehazten dugu. Hala, gaztearen adinaren eta ikasketen arabera, ikasketak jarrai ditzan ahalegintzen gara; edo beste zerbait interesatzen bazaio, ba hori lortzen ahalegintzen gara; lanbideren bat erakusten… Adibidez, orain Aramaioko KZGunera Internet-en ibiltzen ikastera joaten den gazte bat daukagu. Kiroldegira joaten ere utzi izan diegu, Arrasateko EPAra… gaztearen ezaugarrien arabera. Ez dugu nahi gaztea atzean geratzerik. Eta gazteen %98-99arekin funtzionatu egiten du jardunbide horrek".

Asteburuetan, berriz, aisialdiarekin lotutako ekintzak egiten dituzte: mendira, zinemara…

EGUN BAT MENDIXOLAN

Mendixolako gazteendako 08:30ean hasten da eguna. Garbiketak-eta egin ostean, 09:00etan gosaldu egiten dute. Gero, logela txukuntzeko-eta ordu erdi dute. Hala, 09:30ean Oinarrizko Taldea izeneko ekimena egiten dute: "Ordu erdiz gaztearekin berba egiten dugu ea zela pasatu duen bezperako eguna, arazoren bat daukan… Halakoak. Egunero". 10:00etan ekintzekin hasten dira: lantegia, ikasgelak… 12:00etan hamaiketakoa egiten dute, eta 12:00etatik 14:00etara berriro ere ekintzak egiten dituzte. 14:00etatik 16:00etara bazkalordua da. Tarte horretan bazkaltzeko eta aisialdirako astia dute gazteek.

Gazte gutxi daude, eta modu horretan tratamendu espezializatuagoa ematen diete

"Gaztearen psikologiarendako oso garrantzitsua da ordutegia ondo egituratuta izatea"

"Arazoei-eta aurre egiteko bestelako ikuspuntu bat aurkezten diegu guk gazteei"

U.M.

Aramaioko Eguzkierripa auzoan dago Mendixola, hesi txiki batek inguratuta.

Era berean, tokatzen zaienek bazkarikoak-eta batu beharko dituzte eta harrikoa egin. Bestalde, tarte horretan izaten dute baita ere etxekoen deiak hartzeko aukera.

"Gero, berriro ere hasten gara egunerokoarekin, 16:00etatik 18:00etara, merienda ordura arte. Eta 18:30etik 20:00ak arte eguneko azken eskola edo dena delakoa izaten dute".

Behin hori bukatuta, 21:00ak arteko denbora librea dute. Tokatzen zaionak lan komunitarioak egin beharko ditu. Gero afaldu egiten dute. Eta ohera joan baino lehen (22:30ean), berriro ere etxeko deiak jasotzeko tartea dute, edo aisialdirako. "Hori astegunetan izaten da, asteburuan bestelako ordutegia erabiltzen dugu".

Edozelan ere, ordutegia oso egituratua dagoela nabarmendu nahi dute: eguneko 14 ordu. "Oso garrantzitsua da gaztearen sikologiarendako. Normalean, gaztearen aurreko bizimodua oso nahasia izan da: 15:00etan jaiki ohetik eta eskolara joan ez, ogitarteko bat edo halako zerbait jan eta akaso goizeko ordu txikiak arte kalean ibili… Antolamendu barikoa. Gure ordutegiak lagundu egiten die, egituraketak. Izan ere, bizimodu egituratua duenak, adimen egituratua dauka. Gainera, berehala ohitzen da bizitzeko modu horretara. "Jateko ohiturak ere asko zaintzen ditugu. Zenbaiti babak ipini izan dizkiegu eta ez dakite zer diren".

Eta bukatzeko, kirol dezente egiten dute. "Oso garrantzitsua da ondo elikatzea eta ariketa fisikoa egitea".

PENTSAMENDUA LANTZEKO EKINTZAK

Egiten dituzten ekintzen artean, berriz, zera nabarmendu digute: "interbentzio psikopedagogikoan oinarritutako programa: zenbait moduluz osatutakoa da: autoestimazioa lantzea, harremanak, arazoak konpontzen erakusteko… Azken batean, pentsamendua garatu eta hura erabiltzen erakustea da asmoa. Gero eurek ikusiko dute arazo baten aurrean zein bide hartuko duten, baina, guk bide guztiak erakutsiko diegu. Horrek ez du esan nahi berriro ere erantzun okerra emango duenik, baina, behintzat badaki baduela beste bide bat. Guk beste ikuspuntu bat aurkezten diegu".

JOSEAN MORGADO ETA RICHARD VAQUERO / HEZITZAILEA ETA ARDURADUNA

"Gehienak haserre datoz; eta erabat aldatuta ateratzen dira"

Richard Vaquero Mendixolako arduraduna, eta Josean Morgado hezitzaile soziofamiliarra:

Zein motatako delituak egin behar dituzte gazteek hona etortzeko?

Josean: Lapurretengatik datoz gehienak. Salbuespenen bat izan ohi dugu, baina, gutxitan.

Richard: Bai, azkenaldian familiari tratu txarrak eragitearren zigortutako gazteren bat zein beste izan dugu. Baina, gehienak lapurretan egiteagatik datoz. Edozelan ere, lapurreta dezente egin behar dira halako zentro batean sartzeko. Hemen sartu baino lehen, bestelako zigorrak ezartzen dizkiete, bigunagoak: komunitatearendako lan egin, zaintzapeko askatasuna…

Kale borrokarekin lotutakorik ez duzue?

J.: Kale borrokarekin lotutakoak Madrilera eramaten dituzte, Audientzia Nazionalera. Gero, Estatuko zentroetan sartzen dituzte. Preso politikoekin erabiltzen duten politika bera erabiltzen dute: dispertsioa. Guk Euskadiko epaitegietan epaitzen dituzten gazteak hartzen ditugu.

Estatuko zentroak aipatuta, halakoren batean tratu txarrak salatu izan dituzte…

R.: Pertsona moduan, nik ezin dut halakorik ezta pentsatu ere egin. Ez naiz kartzelaria ezta torturatzailea ere. Lana gustuko dudalako nago hemen.

J.: Jakingo banu halako zerbait gertatzen dela, salatu egingo nuke. Edozein lekutan. Dena dela, gure zentroan halakorik ez gertatzeko kontrolatzeko mekanismo oso zorrotzak ditugu: epaileak eta fiskalak datoz eta gazteekin berba egiten dute, Arartekoa, Justizia Saileko ordezkariak…

Bete daitekeen gutxieneko zigorra? Eta gehienekoa?

U.M.

Josean Morgado eta Richard Vaquero, Mendixolako sarreran.

> *"Jakingo banu torturatu egiten dela, salatu egingo nuke, edozein lekutan"*

> *"Emaitza onak lortzen ditugu; galdegin izan digute lan egiteko moduarengatik"*

R.: Asteburu bat, adibidez.

J.: Ez da gauza handirik, baina, nahikoa da gazteak sustoa hartzeko. Ikusten du-eta hona bidaltzen badute arauak bete beharko dituela, ezingo duela nahi duena egin… Horrelakoekin gogorragoak izaten gara, eskarmentu txiki bat eman nahi diegu-eta.

R.: Egia esan, halakoak normalean ez dira bueltatzen.

J.: Eta asko jota bi urtez egoten dira, baina hori ere asko da.

Zein adinetako gazteak etor daitezke?

J.: 14tik 18 urtera artekoak.

R.: Dena dela, 18 urte betetzear dagoen gazte bat ekartzen badute, gurekin segitzen du. 21 urtera arte egon daiteke.

Zelako emaitzak lortzen duzue, zuen ustez?

J.: Dezente onak. Europako zenbait lekutatik galdetu izan digute zela lan egiten dugun…

R.: Ikusgarria izaten da gaztea zentrora zela sartzen den ikustea eta zela ateratzen den ikustea. Hasieran haserre datoz, agresibo, beldurrarengatik. Gurekin harremanik ez dute nahi… Irten eta gero, berriz, bisita egitera eta guzti etorri izaten dira, eta euren bizimoduaren berri ematera.

ALOÑA-UDA

Oñatiarren eta aretxabaletarren arteko derbia Goiena Telebistan.

Domekan, otsailaren 29an
Azkoagain futbol zelaian, 16:30ean.
19:30ean GOITBn

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko duzu!

ALOÑA MENDI-UDA
Oñatiko laguntzaileak: Arkupe, Boga, Iturritxo, Izarraitz, Olakua
Aretxabaletako laguntzaileak: Aretz, Azkena, Basabe jatetxea, Ezkutu, Gurea, Orly, Zaraia.

AMAGOIA LASAGABASTER

Elkarriko Debagoieneko kideek eta boluntarioek eman zuten prentsaurrekoa, Arrasaten.

1.500 sinadura batu nahi ditu Elkarrik zapatuan Debagoienean

Sinadurak batzeko mahaiak jarriko ditu ibarreko herri guztietan

OIHANA ELORZA

Dagoeneko 1.600 bat sinadura batu ditu Debagoieneko Elkarrik, eta zapatuan, beste 1.500 batu gura ditu. Hirugarren Bake Konferentzia bultzatzeko ari da sinadura batzen Elkarri. Hilabete barru amaituko du kanpaina.

Debagoieneko Elkarri mugimenduak ibarreko herri guztietan jarriko ditu mahaiak, sinadurak batzeko. Guztira, 20 mahai jarriko ditu, eta Elkarriko kideak eta boluntarioak arituko dira sinadurak batzen. Euskal Herri osoan, 1.000 mahai jarriko dituzte; 250, Gipuzkoan.

Hirugarren Bake Konferentzia bultzatzeko kanpaina abiatu zuen Elkarrik duela hilabete batzuk. Kanpaina horretan, 100.000 sinadura lortu gura ditu Euskal Herrian. Dagoeneko 65.000 batu ditu, eta zapatuan egingo den sinadura batze erraldoiarekin, 80.000ra heldu gura du. Horretarako, mahaiak jarriko ditu, zapatuan, Euskal Herriko herri guztietan.

Lortu nahi dituen 100.000 sinadura horiek batzen, Elkarriko kideak ez ezik, boluntarioak ere ibiliko dira. 3.000 boluntarioren beharra aurreikusten du Elkarrik. Batutako sinadura guztiak Nafarroako eta EAEko parlamentuetara eramango dituzte, alderdien arteko elkarrizketamahaia osatzeko.

Orain arte oso jarraipen ona izan du sinadurak batzeko kanpainak Debagoienean. Antzuola eta Oñatin, esaterako, sinadura asko batu dituzte. Baita ibarreko gainontzeko herrietan ere. Hilabete barru, datorren martxoaren 28an, amaituko du Elkarrik sinadurak batzeko kanpaina zabal hau.

Aramaion gaur eta Arantzazun domekan, gainontzeko herrietan, zapatuan

NON ETA NOIZ

Sinadurak batzeko mahaiak, ibarreko herri guztietan jarriko ditu Elkarrik asteburuan.

Herri gehienetan bihar, zapatuan, batuko dituzte. Oñatin, esaterako, bost mahai jarriko ditu: Txaketua tabernaren parean, estanko zaharraren ondoan eta Etxaluzen, goiz eta arratsalde arituko dira. Makalena aurrean, eta Olakua auzoko supermerkatuaren aurrean, berriz, goizetik. Arrasaten ere beste bost mahai jarriko dituzte: Portaloian, Arima Zuri plazan, Herriko Plazan, Garibain, eta Eroskin. Bergaran, lau: azokan, Herriko Plazan, Simon Arrieta plazan eta Osintxu auzoan. Osintxun goizez bakarrik egongo dira. Aretxabaletan, Durana kalean jarriko dute mahaia. Elgeta, Eskoriatza eta Antzuolan, aldiz, herriko plazetan ibiliko dira sinadurak batzen, goizetik bakarrik.

Aramaion, bestalde, gaur iluntzean jarriko dute sinadurak batzeko mahaia Herriko Plazan. Domekan, Arantzazuko santutegian, eguerdia arte.

EHE taldeak manifestazioa egingo du zapatuan Bergaran

Euskarak justizian jasaten duena salatu nahi du

O.E.

Justizia administrazioan euskarak jasaten duen "zapalketa" salatu nahi du Euskal Herrian Euskaraz taldeak. Gernikan eta Bergaran deitu ditu manifestazioak. Bergarakoa San Martin plazatik abiatuko da, 18:00etan.

Euskarak justizia administrazioan "pairatzen duen zapalketa egoera" salatzeko, eta "urratsak emateko garaia" dela esateko, bi manifestazio deitu ditu, zapaturako, Euskal Herrian Euskaraz taldeak. Bata, Gernikan egingo da, eta bestea, Bergaran. EHE taldeak deitutako ekimen bat izan arren, Debagoieneko hainbat elkarte eta banakok egin dute bat manifestazioarekin. Esaterako, ELAk, LABek, EHNEk, AEDk, Jardun eta Loramendi euskara elkarteek, Arizmendi ikastolak eta Arrasateko institutuak, Txapa Irratiak eta AEK euskaltegiak.

Euskararen zapalketaz jabetzeko, Debagoieneko EHE taldeak hainbat adibide eman ditu. Besteak beste, Bergarako epaitegietan gertatzen dena azaldu du. Lau epaile eta beste lau idazkari judizial daude han, eta guztiak erdaldunak dira.

Justizia administrazioan normalizazio prozesua bideratzeko, sei helburu finkatu ditu EHE taldeak. Hauexek dira helburuak: justizia administrazioan euskararen ofizialtasuna aitortzea; zerbitzu publikoa izanik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea; herritarrak berak aukeratutako hizkuntza bermatzea; funtzio publikoetarako euskara derrigorrezkoa izatea; eta urgentziazko irtenbideak bermatzea.

Aralarrek dio ez duela inoren kargurik hartu

Debagoieneko Aralarrek dio ez dituela hartu tokatzen ez zaizkion zinegotzien aulkirik. Herrietan, aulki horiek hartu gabe daudela esan du. Debagoieneko Aralarrek dio: "Pentsatu genuen ez zela etikoa karguak hartzea, eta uko egin genien. Elkartasun keinua ere egin nahi genien legez kanpo utzitako plataformei. Horregatik, harri eta zur gelditu gara gure izenak hormetan ikusita". Gaineratu du, udaletan elkarlana bultzatzen saiatu dela, eta bide horretan jarraituko duela./O.E.

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

LANERAKO PRESTAKUNTZAKO IKASTAROA
AUTOMOBILEKO MEKANIKARI LAGUNTZAILEAK 2004

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzua, INEMeko FIP Planaren dirulaguntzarekin, lanerako prestakuntzako ekintzen artean, langabeei zuzendutako automobileko mekanikari laguntzaileak prestatzeko ikastaro bat antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:

- **IKASTAROAREN HELBURUA:** automobileko mekanika arloan langabe talde bati prestakuntza ematea, lanpostu bat lortzen laguntzeko helburuarekin.
- **NORENTZAT:** langabeentzat; emakumezkoei lehentasuna emango zaie.
- **TOKIA:** Arrasate-Aretxabaleta Institutua. Markole Auzoa z/g, Aretxabaleta.
- **ORDU KOPURUA:** 389.
- **ORDUTEGIA:** astelehenetik ostiralera, 14:30etik 19:30era.
- **NOIZ:** 2004ko martxoaren 8tik uztailaren 8ra arte.
- **IZENA EMATEKO EPEA:** 2004 martxoaren 4ra arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.

**ARRASATEKO UDALAREN ENPLEGU ZERBITZUA.
2004KO OTSAILA.**

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Enplegu Zerbitzua

PREVISORA BILBAINA
ASEGURUAK
Osasun zerbitzuen eskaintza zabala barne duen HERIOTZA-ASEGURU bakarra.
Hitzartutako mediku, dentista, optika-kate eta bainuetxeetan DESKONTUAK
Zerrajera kalea 4, 1.
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 19

EHk dio alderdiek bizkarra eman diotela Bergarako proposamenari

EHkoen inguruko "instrumentalizazioaz" hitz egin du alderdiak

OIHANA ELORZA

EHk gogoratu du sorrerako bi helburuak dituela egun ere: Espainiako Estatuaren erasoei aurre egitea eta ezker-zaleen artean indarrak metatzea, irtenbide demokratikoa bilatzeko. Aralar-Zutik koalizioari buruz ere hitz egin du.

Euskal Herritarrok alderdiko Debagoieneko zinegotzi ohiek prentsaurrekoa eman zuten eguaztenean, Arrasateko Monterron jauregian. Bertan, Espainiako hauteskundeei begira egindako *Bergarako proposamenaz* hitz egin zuten.

EH alderdiak gogoratu du ezker abertzaleko eragile batzuek Bergarako proposamena jarri zuela mahai gainean pasa den abenduaren 16an. Esan du aukera honek ordezkaritza nazionala eraikitzea proposatzen zuela. Helburua zela, alderdi interesak albo batera utziz, herriak bere eskubideen defentsan urrats bat gehiago ematea. Baina alderdi guztiek bizkarra eman diotela esan du, alderdien interesak aurretik jarrita.

ARALAR-ZUTIK

Euskal Herritarrok taldean inguruko instrumentalizazioaz ere hitz egin du EHk. Alderdi honek zilegi ikusten du Aralar-Zutik koalizioa, baina aldi berean, onartezina iruditzen zaio, euren burua "EHren oinordekotzat" hartzea.

Bestalde, EHren eta Aralar-Zutik koalizioaren helburuak ez direla berak esan du Euskal Herritarrok alderdiak. Azkenik, datorren martxoaren 14an egingo diren hauteskundeetan *Bergarako proposamena*-ren alde bozkatzeko eskatu du EHk.

XABIER URZELAI

EHko Debagoieneko zinegotzi ohiek eman zuten prentsaurrekoa, Monterronen.

DEBAGOIENEAN LABUR

Autobideko prezioek urteko igoera izango dute martxoaren 1etik aurrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak autobideetako prezioak egokitu egingo ditu. Hortaz, A-1 eta A-8 autobideetako prezioek urteko igoera izango dute datorren astelehenetik aurrera, urte bukaera arte. Aldundiak erabaki du iazko KPI oinarri hartuta %95 igotzea. Iaz, 2,6 izan zen Kontsumo Prezioen Indizea; igoera beraz, %2,47koa izango da. Esaterako, A-1 autobidean, Bergaratik Eibarreraino 0,7 euro ordaindu behar zuten orain arte auto txikiek; astelehenetik aurrera, 0,75. Donostiara joateko 4,10 euro ordaindu beharko da. Igoera horiek kontuan izanda, eta beherapenik egin barik, A-1 autobideko kilometro bakoitza 0,0862 ordaindu beharko da.

Agenda 21 programa udal guztietan ezartzea onartu du Mankomunitateak

Mankomunitatearen hileroko bilera egin dute astean, eta bertan, *Udal Talde 21 Debagoiena* izeneko programa abiatzea onartu dute. Orain, udal bakoitzak eman beharko dio baiezkoa. Helburua da ibarreko udal guztietan Agenda 21 programa ezartzea. Egitasmo horren partaideak Gipuzkoako Foru Aldundia, Ihobe, Mankomunitatea eta Debagoieneko zortzi udalak izango dira. Mankomunitateak gastuen %20 ordainduko du, udalek jarritako diruarekin. Hain zuzen, 18 hilabete dute udalek Agenda 21 ezartzeko.

Mondragon Unibertsitateak ate irekien jardunaldiak antolatu ditu ekaina bitartean

Datorren maiatzaren bukaera arte, ate irekien 23 jardunaldi antolatu ditu Mondragon Unibertsitateak. Jardunaldi horiek Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Ordizia, Elgoibar, Markina eta Irungo campusetan egingo dituzte. Bi ordu inguru iraungo dute, eta fakultate bakoitzeko arduradunek eskaintza akademikoaren xehetasunak emango dizkiete parte hartzen duten guztiei. Unibertsitateak dituen proiektuak ere ezagutuko dituzte, eta eraikina ikusiko dute.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

ANTZUOLA

Autobus zerbitzu berezia egongo da martxoaren 1etik, Bergarara joateko

Martxoaren 1etik aurrera, Bergarara joateko autobus zerbitzu berezia egongo da, arratsaldeetan.

Bereziki, eskolaz kanpoko jardueretara Bergarara joaten diren umeengan pentsatuta jarri du zerbitzu hori Udalak; dena dela, edozein herritarrek erabili ahal izango du. Bono-txartelak jarri dituzte salgai udaletxean. Umeek ikasturte osorako erosi ahal izango dituzte; bestela, hamar bidaiarako bonoak ere salduko dituzte. Gaur, egubakoitza, izango da txartelok erosteko azkeneko eguna. /AINTZANE IRIZAR

EDU MENDIBIL

BERGARA

Zirkulazioan aldaketak, kolektorea jartzeko lanengatik

Ur zikinen kolektorea jartzeko lanek aurrera segitzen dute Bergaran. Sobrino, Tecsa eta Altuna y Uria enpresek dihardute lan horretan. Lanak direla eta, Torrekua eta San Antonio arteko errepide zatia (goiko argazkian) itxi egin zuten aurreko astean. Sobrino enpresa ari da kolektorea jartzen tarte horretan, eta erlojuz kontra bukatu beharko ditu lanak; izan ere, Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehen etapa Bergaran hasi eta bukatuko da datorren apirilaren 5ean. Ordurako Torrekua-San Antonio tartea ondo egoteko hitza eman dute.

Bien bitartean, Mintegi kalea bi noranzkoa izango da eta San Antonio aldetik herrira datozen autoek Arrizuritik jo beharko dute saihesbidera. Bergaratik Eibarrerako irteera ere itxita dago Amillagan. /E.M.

ARETXABALETA

Aimar Olaizola eta Julian Retegi egongo dira Muru-Alden martitzenean

Datorren martxoaren 2an, martitzena, Aimar Olaizola, Julian Retegi eta Iñigo Simon medikua etorriko dira Aretxabaletako Muru-Alde elkartera. Asegarce enpresako hiru langileek pilotaren gainean egingo dute berba, eta herritar guztiek har dezakete parte hitzaldian. Muru-Alden bertan izango da, 19:00etan.

Muru-Aldek 50 urte bete zituen iaz, eta herriko gastronomi elkarte zaharrena da. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzte; Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari eta arduradunak ere egon ziren. /M.A.

ARAMAIO

Euskararen erabilera bultzatzeko plana abiarazteko lanean

Euskara Biziberritzeko Plana lantzen dabil Udala, Aramaion euskararen erabilera normalizatzeko. Hala, planaren zirriborroa idatzita dute, eta hori egiteko, herriko zenbait elkarteren eta agente sozialen ekarpena izan dute. Edozelan ere, herritar eta talde gehiago inplikatzea nahi du Udalak, uste duelako halako ekimenak aurrera eramateko beharrezkoa dela herritarren parte-hartzea. Behin herritarren-eta ekarpen guztiak jaso eta gero, hurrengo bi urteotarako plana egitea da Udalaren asmoa. /U.M.

OÑATI

ITOURBASKen, Euskadiko turismo bulegoen sarean, sartu da Oñati

Oñatiko Turismo Bulegoa ITOURBASKen sartuko da, Euskadiko turismo bulegoen sarean, hain zuzen ere. Udalak Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuorde Koro Garmendiarekin sinatu du Oñati Euskadiko turismo bulegoen sarean sartzeko hitzarmena.

Hitzarmen honekin, Oñatiko Turismo Bulegoak sarean jarriko ditu herriak ematen dituen aukera guztiak. Modu honetan, Oñati bisitatu nahi duen kanpotarrak herriaren inguruko notizia guztiak izango ditu sarean. Baita Debagoieneko informazioa ere.

ITOURBASK Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak bultzatutako ekimena da. Euskal turismo sare batean parte hartzeko abagunea eskaintzen die udalerriei, eta baita sustapen turistikoaren alorrean diharduen edozein elkarteri ere.

Sareko turismo bulego honetan sartzen diren turismo bulegoek betebehar batzuk dituzte. Besteak beste, egoitza horietako altzariek zenbait baldintza bete beharko dituzte. Esaterako, iraunkortasun legeak bete behar dituzte, eta sarean elkarri lotuta egoteko tresneria teknologiko egokia izan behar dute. Ordutegiarekin lotutako baldintzak ere bete behar dituzte.

ITOURBASKeko turismo hitzarmena sinatzeaz gain, Arrikrutzeko kobaren proiektuaren gaineko azalpenak eta argibideak ere eman dizkio Udalak Koro Garmendiari./O.E.

Zertzelada

Oñatik dituen aukera guztiez gain, Debagoieneko informazioa ere eskainiko du Oñatiko Turismo Bulegoak sarean

ARRASATE

San Josepe harrobia ez ixtea eskatu dute langileek eta PSE-EEk

San Josepe harrobia ixteko zenbait alderdik eta taldek egindako eskaera delaeta, harrobiko langileek eta PSE-EEk euren iritzia kaleratu dute oraingo astean.

Batetik, harrobiko 14 langilek esplotazioaren luzapenaren alde egiteko eskatzen diote udalbatzarrari, euren lanpostuak ez galtzeko. Bestetik, gainerako bost langileek diote langileen erdiak ziurtatuta daukala lanpostua hormigoi-lantegian eta gainerako langileen iritzia erdibituta dagoela. Diote, besteak beste, harrobiaren jarduna luzatzea ez dela konponbidea. Eta PSE-EEk txosten teknikoak eskatu zituen, gaiaren gaineko erabakia hartzeko. /U.M.

NEREA ZUBIETE

PSE-EEk txosten teknikoak gura ditu erabakia hartu baino lehen.

ESKORIATZA

Elurra kentzeko plana antolatu du Eskoriatzako Udalak, badaezpada

Eguraldi kaskarra itzuli da. Eskoriatzako Udalak behar izanez gero, elurra kentzeko plana prestatuta duela adierazi du. Orain arte baserriko traktore bati pala bat atxiki, eta hori zuten elurra kentzeko baliabide bakarra. Orain, aldiz, Construcciones Razquin-ekin akordio batera iritsi dira. Enpresak kamioi bat jarriko du, pala batekin, eta gatza botatzeko sistema duena. Horrela, elizateetara joateko bideak blokeatzen badira, enpresaren esku geratuko da bidea zabaltzeko lana. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

ELGETA

Elkarrik Bake Konferentziaren aldeko sinadurak batuko ditu plazan

Elkarri erakundeak Bake Konferentziaren aldeko sinadurak batzen dihardu, eta asteburu honetan, hain zuzen ere, Debagoieneko herri guztietan ipiniko ditu horretarako mahaiak. Guztira, ibarrean 1.500 sinadura batzea da Elkarriren asmoa.

Elgetarrek bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara izango dute sinatzeko aukera. Elkarriko ordezkariek plazan, Ozkarbi elkartearen aurreko aldean jarriko dute mahaia, eta sinatu nahi duenak bertara jo besterik ez du. /I.A.

GATZAGA

Sorginak taldeak martxoaren 6rako bazkaria antolatu du Gure Ametsan

Gatzagako Sorginak emakume taldeak bilera egin zuen martitzenean. Martxoaren 8a gertu dagola ikusita, datorren martxoaren 6rako bazkaria antolatu dute. Izena emateko epea otsailaren 29ra arte egongo da zabalik, eta interesatuek Labideara jo beharko dute. Gure Ametsa jatetxean izango da bazkaria, eta bertan, aurten *sorginek* egingo duten bidaia nora izango den erabakiko dute; aurreko urteotan gatzagarrak Burgos eta Oviedon egon dira, besteak beste. /Z.V.M.

AEBetako estatu bateko hiriburuak, Boisek, alkate euskalduna du joan den hilea ezkero. Dave Bieter 44 urteko abokatua dugu berau. AEBetako euskaldunez, Euskal Herriaz… eta Debagoienaz egin dugu berba berbarekin.

BOISEKO UDALA

Dave Bieter

BOISEKO (AEB) ALKATEA

"AEBetan Alderdi Demokratak irabaztea ona izango da Euskal Herriarendako ere"

OÑATIN BIZI IZAN ZENEKOAK

"Bi aldiz egon naiz Oñatin; lagun handiak ditut han oraindik, eta elkarri idazten diogu. Hango jendea oso ondo portatu zen beti nirekin eta familiarekin"

EUSKAL HERRIKO EGOERA

"Hemengo ikuspuntutik, ez dugu ulertzen 'Euskaldunon Egunkaria'-rekin gertatu zena, ez eta alderdi politikoak legez kanpo uztea ere"

LEIRE KORTABARRIA

Zure hiriko, Boiseko, alkate moduan sei aste bete dituzu. Zer moduz?

Oso ondo. Oso pozik nago kargu berriarekin. Ni Boisen jaioa naiz, oso maite dut nire hiria eta beti nahi izan dut bere alde lan egitea. Orain, oso lanpetuta gabiltza lantaldekook. Baditugu lehenbailehen gure arreta eskatzen duten hainbat gai. Adibidez, hirian etxerik ez dutenak, kalean bizi direnak, hartzeko egoitza bat dago, baina diru aldetik oso gaizki dago. Hiriko polizia sailean ere badaude konpondu beharreko hainbat kontu. Horiek dira gure lehentasunak.

Zure garaipena harrigarria izan da hainbatendako, Idahoko gehiengoaren joera politikoa kontuan hartuta. Hala ere, botoen %52rekin irabazi zenuen.

Hala da, bai. Idahoko gehiengoa errepublikarra da; ni Alderdi Demokratako kide naiz. Bitxikeria moduan honakoa esango dizut: hauteskundeak egin zirenean, gure izeba elizara joan zen, eta gotzainak esan zion bazekiela neuk irabaziko nuela. Eta halaxe izan zen.

Laster, AEBetan Etxe Zurirako hauteskundeak izango dituzue. Zelan ikusten dituzu?

John Kerry hautagaiak ditu aukera handien Alderdi Demokratako hautagai izateko. Nire ustez, demokratek irabazten badute, Euskal Herriarendako ere ona izango da. AEBen eta Euskal Herriaren artean harremanak indartzeko aukera bikaina izango da. AEBetako presidenteak bi etxebizitza ofizial izaten ditu; bata, oporretarako. Eta Kerryk irabazten badu, baliteke hemen, Idahon, izatea etxea. Hori horrela bada, harekin elkartzeko aukera izango nuke.

John Kerryk orain dela gutxi egin zituen adierazpenek hautsak harrotu zituzten euskaldunon artean. Izan ere, euskaldunak terrorismoarekin lotu zituen.

Bai, hori esan zuen hasieran, baina gero zuzenketa egin zuen. Nik asmoa dut Kerryren emaztearekin elkartzeko egunotan, eta gai horretaz berba egiteko asmoa dut. Nik uste dut, pixkana, ikasiko duela gehiago euskaldunon inguruan.

Hemen ere hauteskundeak izango ditugu laster. Zelan ikusten dituzu?

Oraindik ez dut informazio larregi, baina badut hauteskundeak jarraitzeko asmoa.

Euskal Herriko egoera oso ondo ezagutzen duzu, hala ere. Oñatin bizi izan zinen.

Hala da, bai. Bi aldiz egon naiz Oñatin. Lehenengoz, 1974an. 14 urte nituen, eta Francoren garaiko azken urteak ziren. Bigarren aldiz 1979an egon nintzen han. Familia osoa joan ginen. Izan ere, gure aita zena, Pat Bieter, Historiako irakasle zen Idahoko Unibertsitatean, eta Europan urtebete pasatzeko programa baten zegoen. Oñatiko Txantxiku ikastolan ibili zen gure anaia zaharrena, Chris. Gero, orain dela 15 urte, ni neu Loiuko Lauroko ikastolan ibili nintzen, ingelesa irakatsi eta euskara hobetzen. Oso urte interesgarriak izan ziren Oñatin pasatutakoak: hango jendea oso jatorra da eta nire familiarekin oso ondo portatu zen. Orain ere lagun handiak ditut han, eta elkarri idazten jarraitzen dugu. Oso herri ona da.

Boisen euskaldun jatorriko jende asko dago. Zelan bizi da han euskalduntasuna?

Asko aldatu dira gauzak. Lehen, euskaldun etorkinak artzain moduan lan egitera etortzen ziren… Orain, jendea gero eta sarriago ibiltzen da AEBetatik Euskal Herrira joan-etorrian. Internet, posta elektronikoa… ditugu, eta albisteak askoz ere bizkorrago iristen dira leku batetik bestera. Ni neu hirugarren belaunaldiko euskalduna naiz —Bieterren amak, Eloise Garamendiak, bizkaitar aita-amak zituen—, eta hemengo euskaldun gehienak hirugarren eta laugarren belaunaldikoak dira. Bi herrialdeen arteko harremanak gero eta estuagoak dira komunikabide berriei esker; bestalde, hemen gazteendako dantza taldeak daude, ikastola… Dantzak ikastera, adibidez, gazte mordoa joaten da. Giroa oso ona da, alde horretatik.

Bestalde, hemengo euskaldunak politikan sartzen ere hasi dira, poliki-poliki. Esaterako, orain dela bi urte Peter Cenarrusa orduko Idahoko estatu idazkaria eta nik neuk Idahoko Memoriala bultzatu genuenean, Euskal Herriko autodeterminazio eskubidearen alde; jende asko joan zen horren berri jasotzera.

Zuretako eta hango euskaldunendako, zeintzuk dira Euskal Herriaren inguruko kezkarik handienak?

Ez neuk ez eta hemengo jendeak ez dugu *Euskaldunon Egunkaria*-ren kasua ulertzen, ez eta alderdi politikoak legez kanpo uztea ere. Hori, hemengo ikuspegitik, pentsa ezinekoa da. Francoren garaian bizi izan nuen giroa ekartzen dit gogora.

Justizia sailburu Joseba Azkarraga eta sail horretako beste hainbat kide bisita ofizialean izan dituzue otsail erdialdean. Zein da zure balorazioa?

Oso ona. Idahoko Estatuko Parlamentuan egon zen estatuko idazkari Ben Ysursarekin eta idazkari ohi Peter Cenarrusarekin. Herriarekin topaketak ere egin zituen: Unibertsitatean, abesbatzarekin… Eta Unibertsitateko arduradunekin harremana eraikitzen hasi zen. Horrelako bidaiak oso positiboak dira. Eta, esan bezala, AEBetan hauteskunde orokorrak berehala izango dira, eta Washingtonekin elkarlana handitzeko aukera izango dugu, hemengo eta hango euskaldunon mesederako. Orain politikan nago ni ere, eta ahal dudana egiteko asmoa dut bide horretan aurrera egiteko.

Euskaldunak ez diren amerikarrek zer dakite euskaldunoz?

Idahon, euskaldunon ospea handia da: herri langile eta oso zintzoaren ospea dugu. Idahotik kanpo, ordea, askoz ere gutxiago daki jendeak. Gehienek ETAren inguruko zer edo zer dakite, besterik ez. Alde horretatik, lan handia dugu egiteko. Pixkana joan beharra dugu.

Eusko Jaurlaritzak gonbidatu zaituzte orain Euskal Herrira berriro ere etortzera. Zelan ikusten duzu aukera hori?

Oso aukera polita izan daiteke, eta badugu, bai, joateko asmorik. Ikusiko dugu zer gertatzen den azkenean; edozelan ere, elkarren gainean gehiago ikasteko modua izan daiteke. Idahoko Memorialaren harira, euskaldun ez diren amerikarrak hasi ziren euskaldunen inguruan gehiago ikasten, eta bidaia baten bidez, Euskal Herria benetan zelakoa den plazara dezakegu. Nire ustez, oso garrantzitsua izan daiteke hemengo jendearendako eta gobernuarendako Euskal Herrira bisitaldi hori egitea.

Argi dago AEBetako euskaldunak oso ondo informatuta daudela Euskal Herriko egoeraz, baina zer diozu alderantzizko egoeraz? Euskal Herriak ezagutzen du hango euskaldun komunitatea?

Gero eta gehiago, bai. Alde horretatik ere badago zer egin, ordea. Baina, nire ustez, bi taldeon arteko harremanak indartzen joango dira.

Zuk urtarril hasieran egin zenuen alkate postuaren zina. Baina ez zara politikara iritsi berria.

Ez. Bost urte eman nituen Idahoko kongresuan. Orain, aste gutxi batzuk daramatzat alkate. Lau urte ditut aurrez aurre. Lan eskerga izango da.

Etxe Zuriarekin amesteko unea, beharbada…

Gerokoak, gero… Oraingoz, nire lehentasuna da alkate lana ahalik eta ondoen egitea. Oso-oso pozik nago nagoen lekuan, nire hiriaren alde lan egiten. Gero gertatuko direnak ikusteko daude.

Gutunak

Pauso bat aurrera

Artikulu hau argitaratzerako *Asteon* telebistari buruzko aldizkariaren lehenengo zenbakia banatuta egongo da 9 toki-aldizkarirekin batera. Astekari berria aurrerantzean ostiralero zabalduko da dohainik eta 75.000 etxetara helduko da. Topagunearekin batera 8 toki-aldizkarik Herri Komunikabideak Kooperatiba elkartea eratu dute *Asteon* argitaratzeko; proiektu honen inguruan makinatxo bat lagunek egin dizkidaten galderak beste askorenak ere izango direlakoan, galderok erantzuteko asmoz idatzi ditut lerro hauek: zertara dator, beraz, telebistari buruzko aldizkari bat bultzatzea? Zer interes izan dezake tokiko aldizkari batek *Asteon* moduko produktu batengan? Azken batean, ez al dago beste gai interesgarriagorik?

Azken 20 urteotan tokiko aldizkariak perretxikoak bezala ugaritu dira Euskal Herriko mapan, baina, perretxikoak ez bezala, herrietako eragileek ondo landu eta ureztatu behar izan dituzte ekimen hauek, iraun zezaten. Hauetako 34 aldizkari Topagunean federatuta daude eta bakoitzak bere eremuan herri-informazioa lantzen du, tokian tokiko —herri zein eskualdeko— bizilagunen arteko komunikazio-sareak indartuz. 2.000 ale Soraluzen, 4.000 Azkoitian, 8.000 Durangaldean, 4.000 ale Sakanan, 2.000 Deustuan... herriz herri makina bat lagun ari da txindurri-lanean herri-informazioa euskaraz eskaini ahal izateko. Bakoitza bere erritmoan, bakoitza bere berezitasunekin, alez ale eta eskualdez eskualde ikaragarrizko mugimendua osatzen dute aldizkariok. Sektore honetako hedapena metatuz gero txindurri-talde horrek ikaragarrizko indarra dauka, idatzizko euskarazko prentsan inoiz izan den zabalkunderik handiena lortu baitu: 160.000 ale argitaraldi bakoitzeko.

Errealitate bakoitzari erreparatuta, aldizkari bakoitza bere eremuan ezinbesteko erreferentzia da, berezko nortasunarekin, formatu, maiztasun eta estilo ezberdinekin, baina betiere guztiak tokiko informazioa euskaraz jorratzen eta euskarazko irakur zaleen zerrendak potolotzen. Aniztasunaren adibide argi dira tokiko aldizkariak; txindurriak bezala irudikatuko bagenitu, bakoitzak bizkarrean garraiatzen duen zama ezberdina litzateke: batek hazi bat eramango luke, besteak ale bat, hirugarrenak ogi-pirrina… txindurri bakoitza bere elikagai pilotxoa egiten, guztiak beharrezkoak euskaldunon informaziogosea asetzeko.

Eta txindurri guztiek beraien indarrak norabide berean jarriko balituzte? Denen artean biltegi erraldoia beteko lukete hazi eta ogi-pirrinez, euskaldun gehiago asebetetzeko, modu egokiagoan gainera. Horixe da *Asteon*-ek daukan helburua: tokiko aldizkariek proiektu honen inguruan bat eginez, dauden sinergiak aprobetxatzea eta sektoreko eragileak norabide berean lan eginez gorpuztea. Tokiko aldizkarien eskaintza guztientzat interesgarria izango den produktu batekin aberastu, herrietako banaketa-azpiegiturei etekina atera, elkarteen arteko komunikazioa eta elkarlana indartu, hilabetekari eta hamaboskariak asteroko dinamikara ekartzen lagundu, iragarle handien publizitate-merkatua landu…, horretara dator *Asteon*.

Euskarazko aldizkari tematikoen artean hutsune ikaragarria dago, guztia dago egiteko. Beraz, zergatik aukeratu telebista? Gure irakurleak telebista ikustera bultzatu nahi al ditugu? Itaunon erantzuna sinplea da: tokiko aldizkariek orain artean zerbaitetan asmatu badute, publiko orokorrarentzat erakargarri den produktua lantzen asmatu dute. Gazte zein nagusi, emakume zein gizonezko, kirolzale zein txutxu-mutxuzale, alderdi bateko zein besteko… izaera askotariko herritarrek jarraitzen dute tokiko aldizkaria. Publiko horrentzat guztiarentzat interesgarri izan daitekeen zein gai jorra genezakeen gure helburua lortzeko? Aukera bakarra otu zitzaigun, telebista. Norbanako asko telebista ikusten duela aitortzeko prest egon ez arren, telebistek jendetzak mugitzen dituela kontu ezaguna da. *Asteon*-ek telebista gehiago ikustera bultzatuko duela esatea zentzugabea da; alabaina, telebista-ikusleen artean izango ahal du euskarazko kateen alde eragiteko indarra... Indar hori, ezerk ematekotan, zabalkundeak emango dio, eta hori aldizkariak egitasmora hurbildu ahala lortuko dugu.

Behin telebista jorratzeko erabakia hartuta, azken emaitza *Asteon* izan da, hortaz; horixe da tokiko aldizkari ezberdinen indar-metaketak lortutako emaitza: kolorez beteriko 48 orrialde, diseinu bizi eta erakargarria eta idazkera arin eta ulerterraza dauzkan astekaria, hainbat adituren iritziak, mundu horretako azken berriak eta Euskal Herrian ikus daitezkeen kate nagusien programazioak biltzen dituena.

Esparru garrantzitsu bat euskararentzat irabazi, tokiko aldizkarien eskaintza aberastu eta berauen kohesioa areagotu gura izan dugu ekimen honen bitartez. Geroak esango du asmatu ote dugun ala ez.

JASONE MENDIZABAL,
'ASTEON' ASTEKARIAREN
ZUZENDARI-KUDEATZAILEA
Abadiño

Garraio arazoak

Iragarkiak dioenez *baY/sY* esateko aukera omen daukagu, eta esatearekin bat bizitza zoriontsu bihurtuko zaigu. Baina erdal aldaerak erabiltzen hasita nahiago *Yez* esatea, ez baitut sinesten zoriontasunera eramango gaituen bide lasterrik dagoenik.

Aspaldian bailarako hainbat ahots ezagunek temati ekin dio goragotik jotako turutaren doinua errepikatzeari: Y-a merkantzien garraio arazoen konponbidea izango omen da. Ingurumenarekikoak alde batera utzita (garrantzitsuenak diren arren), garapen ekonomizistaren ikuspegitik eman nahi nuke beste argudiorik.

Gaur da eguna bailara mailan Mankomunitatean azterketa zabal bat egiten ari dena pertsonen garraioari dagokionez. Merkantzien garraioaz, berriz, ez dago daturik, edo ez dituzte mahai gainean jarri nahi. Ez dakigu egunero zenbat kamioi, nondik eta nora sartzen den bailaran, eta ezta zenbat irteten den ere. Jakin badakigu arazo bat dela, baina neurtzen ote dugu? Orain Mankomunitatetik bailaran merkantzientzako geraleku bat eskatzen dugu Y-tik bideratzeko merkantziak. Zertarako? Non daude hori justifikatzen duten datuak? Eta arazoa konpontzen ez bada, nork hartuko du orain hartzen ari garen erabakien ardura?

Nik ez daukat datu zehatzik, baina gaiari buruz bat-batean pentsatuta zera esango nuke: bailaran merkantzia bolumen handia sortzen duen enpresa askok beraien biltegiak Gasteizen dituzte, beraz ez dut uste Arrasaten, Bergaran edo Oñatin kamioia kargatu, Antzuolako AHTren geralekuan deskargatu, trenean kargatu, Gasteizera eraman, trenetik deskargatu, beste kamioi baten kargatu, biltegira eraman eta bertan deskargatzeko (askoz ere azkarrago eta merkeagoa da zuzenean kamioiz igotzea Gasteizera); horniketari dagokionez, berriz, horniketa maiztasunak igo eta bidai bakoitzeko kopurua murriztuz joan den heinean, gaur egun bailaretako enpresa handienen horniketa dinamika ez dator bat planteatzen zaigun garraio eskema horrekin. Baina hau guztia hipotesi hutsa da, ez daukagulako datu zehatzik merkantzien garraioaren arazoa aztertzeko.

Horregatik eskatzen dut ez jardutea arinkeriaz eta jarraikeriaz, datu gabezian oinarrituta, hiritarroi Y-aren apologia egiten; horregatik eskatzen dut gai hau seriotasunez aztertu, datuak eta informazioa hiritarroi helarazi eta guztion iritzia kontutan hartzea.

Horregatik eta beste hainbat arrazoigatik jarraituko dugu garapen eredu ekologikoari *Yez* esaten.

IÑIGO IÑURRATEGI,
ARALAR-KO ZINEGOTZIA BERGARAN
Bergara

Epaitegian euskaraz

Badira bost urte EAEko epaitegietan euskararen normalkuntzarako plangintzei buruz Justizia sailburuak (Intxaurraga eta Azkarraga jaunak) ahoa bete dihardutela. Baina zein plangintzetaz ari zatzaizkigu, Euskal Herriko epaitegietan euskarak "bizi" duen egoera orain 5, 15 edo 25 urte zenaren berbera izaten dihardueneanen?

Justizia administrazioan hizkuntza eskubideek jasaten duten zapalkuntza euskararen lurralde osoan ematen da, ez soilik EAEn. Eta horren lekuko dira herritarrek epaitegietan euskaraz egiteko konpromisoa hartu izana; Donostia, Bilbo, Baionako epaitegietan edo Lea Artibai eta Busturialdeko hainbat euskaltzale eta eragile burutzen ari diren gose greba.

Egoera honek agerian uzten du soluziobideak ere lurralde osoan aplikatu behar direla. Baina normalkuntza planez diharduten erraztasun berberaz agerrarazi dute beraien iruzurra eta arazoa konpontzeko borondate eta konpromiso eza. Hortaz zer behar du euskarak Justizia administrazioan normaltasun osoz aritzeko. Herritarron konpromisoa mahai gainean da. Orain administrazioko arduradunei dagokie hori bermatzea.

Euskaltzaleok aurrera darraigu. Euskararen normalkuntza prozesua oztopatzen duten eraso oro salatuko dugu, bai eta soluzio bideak aldarrikatu ere. Horregatik datorren Otsailaren 28an Bergaran eta Gernikan egingo diren manifestazioetara joateko deia luzatu nahi diot euskal herritar orori.

Gure eskubidea delako epaitegian euskaraz egin. Euskara Euskal Herriko hizkuntza delako ofizialtasun osoa eta erreala orain.

IÑIGO ARREGI
Bergara

Espediente gutxiago

Arrasateko Omico S.L. enpresako zuzendaritzak enpresa gestioan daukan gaitasun ezak, berriz ere bide totalitarioenak erabiltzera behartu ditu. Oraingoan, beste langile bati zigor espediente bat irekiz. Ondorioz, LAB, ELA eta UGTko sail sindikalek Omico S.L.-n bizi dugun egoera jasangaitza salatzen dugu, eta egoera honen ardura zuzendaritzak daukan irizpide faltari eta CCOOko sail sindikalak ematen dion babesari egozten diogu.

OMICO-KO LANGILEAK
Arrasate

Inposaketarik ez

Euskal Gazteok, azken urteetan jasaten dugun egoera, inoiz ezagutu dugun egoera lazgarriena da. Gure herriaren kontrako zapalkuntza eta erasoaren erdian, estatu espainiar eta frantziarraren eraso zuzen eta bortitza jasaten dugun kolektiboa osatzen dugu. Kolektibo zatitua, ukatua eta zapaldua.

Gure belaunaldia diktadura baten amaiera omen zen horretan jaiotakoa da. Egun, ordea, diktadura baten erdian bizi gara. Gure belaunaldia, gazteok, gara Euskal Herriaren zatiketa, mendekotasuna eta ukazioa mantentzeko diseinaturiko estatutuaren porrotaren frogarik argiena. Gazteok gara, Euskal Herriak eta euskal gazteriak espainiar eta frantziar kate mingarriei loturik jai dugunaren frogarik argiena. Zentzu horretan, euskal gazteok autodeterminazio eskubidea erdiesteko daukagun premia larria azpimarratu nahi dugu, izan ere, gazteok ataka honetatik ateratzeko bide posible bakar gisa ulertzen baitugu Euskal Herriaren aitortza eta errespetua, horixe baita, gazteon eskubideak aitortuak eta errespetatuak izan ditzagun posible egin dezakeen egoera bakarra. Horixe baita, gazteok egunero amestu eta borrokatzen dugun independentzia eskuekin jaso ahal izateko ezinbestekoa dugun eskubidea.

Horregatik, alderdikeria eta norbanako interesa oro salatu nahi dugu. Gazteok ez gaude prest 25 urte beranduago gure eskubideak eta baita Euskal Herriaren eskubideak, utzikeria eta poltronakerigatik zakarrontzira bota daitezen. Zentzu horretan, gure eskubideen defentsa eta hauen aldeko borrokarako deia luzatu nahi diogu euskal gazteria osoari.

Era berean, martxoaren 14an ospatuko diren hauteskunde espainiarretan, inposaketari eta zapalkuntzari muturrean emateko deia egin nahi dugu. 14an, gazteok Espainiari ez, eta Euskal Herria eta gazteon eskubideei bai! Aldarrikatzeko deia luzatu nahi dugu.

Hala, martxoaren 5ean inposaketa ostikatu eta Euskal Herria eta gazteriaren esku-

bideen defentsa aldarrikatzeko mobilizazio egunerako deia egiten dugu. Goizean, 12:00etan Seberotik irtengo da manifestazioa, eta arratsaldean Donostiako manifestaziora joateko autobusak egongo dira. Apuntatzeko zerrenda Iratin dago.

ARRASATEKO GAZTE MUGIMENDUA
Arrasate

Istorio zaharrak

Eman nahi nuke doluz tamalez berria / iraindu duzulako geure sorterria /ordezkatzen duzunez Aramaio herria / konpondu ikurrina ta jarri berria.

Geureek eman arren hargatik bizia / Udaletxean duzu ustel ta hautsia / ikurrina balkoian hagatik jausia / nola ez sortu lotsa ta haserre bizia!

Merche hoakit udal etxeko balkoira / zuri gorri berdea zelan den begira! / trapua balitz letxe ajatzen ari da / Aznar, Fraga ta Imaz alaituko dira!

Mila bederatziehun laurogeita hamaika / urrian arratsaldez

plenoan zuk zita / ikurrina jarri zen zu kontra hasita / espainola zarela nabarmena baita.

Zer egin euen Merche alkatetzan jarriz ? / herrixe zuzentzen dau errespetu gutxiz / bardin egingo zeunke espainola balitz? / Sabin Aranak jaixo biher leuke berriz!

Teilamendin txakurrek goraino igota / dinamita jarriaz ikurrina bota / zertara dator orain Mercheren boikota / orduan alde eta orain berriz kontra.

Euzko gudariak gara Euzkadi askatzeko, gerturik daukagu odola bere alde emateko. Irrintzi bat entzun da mendi tontorrean, guazen gudari danok ikurriñan atzean. Euzkadi 1936 (doinua Resurecion Maria de Azkuek Aramaion jasoa).

HAMALAU HERRI PLATAFORMA
Aramaio

Euskal Herria aitortu!

Ukabila erakusteko bozka. Herri honek eraso latzak ezagutzen ditu, legez kanporatzea, apartheida, egunkarien itxiera, euskara, kultura edo ikurrinaren aurkako eraso etengabeak, espetxeak gainezka, torturak… Hauteskunde hauek egoera honi erantzuteko oihua izan behar dute. Bergarako proposamenak Espainiar inposaketari ez bozkatzeko aukera eskaintzen dizu. Madrilek herri honi ezarri nahi dion gidoia aldatu behar dugu: herri gisa ezabatu nahi gaitu eta herri gisa erantzun behar diogu.

2. Orain autodeterminazioaren aldeko bozka. Egoera honetan ez du balio Madrilera alderdi gisa joateak, bakoitza bere aldetik, hori 25 urteotako eskema errepikatzea da eta gaurdaino ez du balio izan gatazka politikoa konpontzeko. Zer ekarri dute azken lau urteotan euskal alderdiek Madrildik? Mesprezuzko neurri erasotzaileak besterik ez.

Hauteskunde hauek ez dira, beraz, alderdikeriaz jokatzeko eta alderdien programak haizatzeko tartea. Guk argi esan dugu: ez goaz gure interes partikularrak defenditzera hauteskunde hauetan, herri gisa indarrak bildu eta Madrilen aurrean autodeterminazioaren alde egitea baizik.

25 urte beranduago, herri honentzat aukera berri bat zabaldu dugu. ŒEspaña una y grande, nahi dute faxistek; autonomistek aldiz, espainiar estatuarekin itun berri bat nahi dute, gatazkari errotik heldu gabe eta konponbideari bizkar emanez. Guk herri honentzat autodeterminazioa, benetako justizia, bakea eta konponbidea nahi ditugu.

Zein da Aznarrek, martxoaren 14an, gobernua uzten duen egun berean, jaso dezakeen zaplastako handiena? Autodeterminazioaren eta bakearen aldeko bozka bakoitzak eman diezaiokeena.

3. Konponbidean aurrera egiteko bozka. Ez da hauteskunde proposamena soilik, haratago doan iniziatiba baizik: herri honetan konponbidea eta bakea irabazteko konpromiso sendo eta iraunkorra. Bergarako proposamenaren aldeko bozka konponbidean aurrera egiteko inbertsioa da.

Balio bikoitza du, beraz: martxoaren 14an bakea eta autodeterminazioaren aldeko proposamena indarturik ateratzeko, eta era berean, datozen hilabeteetan emango ditugun urratsak sendotzeko.

4. Eskua zabalik daukagunon bozka. Ezker abertzalea hainbat ahalegin eta proposamen egiten ari da: Anaitasunan elkarrizketarako proposamena, Gasteizen Ibarretxeren planaren inguruan eskaintza eraikitzailea eta Espainiako hauteskundeetan Bergarako proposamena. Gatazkaren konponbidea helburu gisa hartuta, gurea eskua zabalik dugunon ahalegina da, borondate osoz eta euskal gizartearen nahiari erantzunez egiten ari garena.

Alderdi interesen gainetik, inor alboratu gabe, herri honi zabaldu zaion aukera berri honi behar bezala erantzun eta autodeterminazio eskubidearen alde dinamika erraldoi bat antolatzeko jarri dugu Bergarako proposamena martxan.

5. Hitza hartu: indarrak biltzearen alde bozkatuz. Ikusten ari gara zer nolako ikuskizun penagarria eskaintzen ari zaizkigun alderdi autonomistak indarrak biltzeari bizkar eman eta beren arteko tirabiretan murgilduta. Zer konfiantza merezi dute Euskal Herrian hain une garrantzitsua bizi dugun honetan horrela —alderdikeria hutsez— jokatzen duten alderdiek?

Bergarako proposamenak bat egin du herri honetako gehiengoaren nahiarekin, indarrak bilduz autodeterminazioaren alde eragin behar dugula dioenarekin. Horren lekuko euskal sindikatuek esandakoa, eta hainbat pertsona esanguratsu eta ezagunek egindako agerraldia. Hauteskunde hauetan alderdi interesak alde batera utzi dituen aukera bakarra da.

DEBAGOIENEKO BATASUNA
Debagoiena

Federalismoa

Euskadirako bizikidetasun modeloa, Atxikimendu Libreko Federalismoa deritzona, oso proposamen orekatua eta potentzialtasun handikoa da. Bi elementu barne hartzen ditu: batetik, euskal gizartearen eskubidea bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko; eta, bestetik, gizarte horren nahia Estatua osatzen duten gainerako herriekin loturak edukitzeko. Horrela, Estatu Errepublikar eta solidarioa eraikiko dugu. Proposamen horrek, gure iritziz, gizartearen zati handi baten babesa izango du; eta hori inkestek frogatzen dute, erakusten dutelako euskal gizarteak sentimendu federalista sakona duela.

Euskal gizartea aspalditik dabil soluzioak eskatzen bizi izaten ari garen gatazka konpontzeko. Baina irtenbidea ez da zentralismotik etorriko, ez autonomiaren eboluziotik —nahiz eta potentzialtasun handia erakutsi duen—, ez eta independentziaren eskutik ere. Izan ere, gure errealitateak "zentralismoa edo independentzia" baino erantzun konplexuagoak behar ditu, "nirekin edo nire kontra", "zuria edo beltza" eta horrelakorik barik. Eta, hain zuzen ere, federalismoa ekarpen ona da era horretako gatazkak konpontzeko. Sinplifikazioetatik ihes egin ahal dugu, eta ihes egin behar dugu, formula juridiko-instituzional zaharkitu eta osorik eman barik, imajinatzen eta eraikitzen segitu behar dugulako. Inongo giza erakunde da gauza arazo guztiak behin betiko konpontzeko.

Federalismoa sortu zen instrumentu izateko herriak elkartzeko, alegia, helburu komunak lortzeko, betiere identitate propioak gordeta. Hori dela eta, ezkerraren tradizioaren ildoko federalismoaren alde egiten dugu; federalismo irekia —non Euskadik edozein unetan erabaki ahal izango duen zein eskumen hartu gura dituen bere gain eta zeintzuk partekatu edo delegatu—; ondo onartutako federalismoa; ez zentrotik ezarritako federalismoa; baizik eta federalismo errepublikarra, herriek onartua: Atxikimendu Libreko Federalismoa. "Santiago y cierra España"-ren aurrean, guk proposatzen dugu elkarrizketa, eta imajinazioari ateak irekitzen dizkiogu.

Euskadin bizikidetasun modeloaren gaineko eztabaida sortu da, eta hedaduraz Estatuan dagoen modeloaren gainekoa. Bada, eztabaida horretan oso eroso sentitzen gara, inongo konplexu barik, eta hura azken ondorioetara eramateko gogoz. Gizartearen nahia ez beste muga barik. Eztabaida honi aurre egin behar diogu inongo histerismo barik; izan ere, guk dagoeneko ipini dugu mahai gainean gure modeloa: federalismoa. Eta hura izan daiteke elkargunea gure gizartearendako eta bizikidetasuna lortzeko.

Vaclav Havel-ek esan zuen: "Esperantza ez da gauzak ondo irtengo diren uste osoa; baizik eta zerbaitek zentzua duen ziurtasuna, azken emaitza axola barik".

ANDER RODRIGUEZ LEJARZA
Arrasate

Erguin kaleko iratzargailua

Azken hilabete hauetan Arrasateko Erguin kalean ezin da lorik egin!. Astelehen, asteazken eta ostiraletan goizeko 07:00etan garbitzaile bat dabilkigu kalean gora eta kalean behera gure espaloiak garbitzeaz gain gure loa izorratzen. Ez dut dudarik, espaloia garbitzea beharrezko dugunik baina goizeko 07:00ak lo egiteko ordua da eta ez horrelako lanak egiteko ordutegia. Hilabete batzuk lehenago, goizeko 08:00etan obrak egiten ibili ziren eta, noski, izugarrizko zarata entzun beharrean aurkitu ginen. Bukatzerakoan denok pentsatu genuen: "A ze bakea!". Baina ez da horrela izan, zeren aurrera egin beharrean, atzera goaz gure auzo gunean: makina bat aparkaleku kendu dizkigute, baden mordoxka batzuk ere jarri dizkigute, gaueko 11:30etan zabor biltzailea pasatzen da eta guzti hau gutxi balitz orain goizeko zazpietan garbiketa! Noiz demontre lo egingo dugu lasaitasunez?

Araudia soilik guri aplikatzen zaigu edo gezurra da gure gurasoek esaten zutena: goizeko 08:00ak baino lehen eta gaueko 10:00etatik aurrera ezin daiteke zaratarik egin. Araudiak ez gaitu babesten?.

Udalari eskertuko genioke ordutegi duin bat aplikatzea honelako lanak egiterako (makina traste horiek izugarrizko zarata ateratzen baitute) eta bestela astetxo batean Arrasateko Udaleko agintarien auzoetan lan hauek egitea proposatuko nieke ea beraien lo eta nerbioak gureak bezain nahastuak jartzen diren.

Erguin kaleko biztanleak ezadostasun hau azaldu nahi dugu: lasai lo egin nahi dugu, gure semeak lo egin dezaten eta gu geu ere lasai esna gaitezen eta ez zarata ezatseginak entzunez. Hori ezean, gure lehengo espaloi zaharrarekin konformatzen gara, honek ez baitzigun garbiketa lanekin arazoak sortzen. Espero dugu Arrasateko Udala gai honek sentsibilizatzea eta denondako aproposa den irtenbide bat aurkitzea egoera honi aurre egiteko gure lasaitasun eta loak ez baitu inolako preziorik.

N.R.G. 72.451.512-V
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a

Podiuma

Gorka Bikuña |ARKULARIA|

OIHANA ELORZA

Arkulariak elkartearen salako ligaren laugarren jardunaldia jokatuko dute domekan, Oñatin. Arrasate, Eibar, Durango, Zornotza, Etxabarri eta Oñati arituko dira lehian. Txantxiku Arkulariak taldeko kide da Gorka.

Nolakoa izango da domekako jardunaldia?

Arratsaldeko bost eta erdietan hasiko da, Zubikoa kiroldegian, barruan. Hiru diana jarriko ditugu, bertikalean, eta 18 metrotik jaurti beharko ditugu geziak. Guztira, 60 gezi botako ditugu.

Nola antolatzen duzue liga?

Arkulariak elkartearen barruan talde bat baino gehiago gaude, eta geure arteko ligaren barruan sartzen da etziko lehia. Aurten sei txanda dira, eta Oñatikoa laugarrena da. Txanda bakoitzean, aurrekoa irabazi dutenen titulua jokatzen da, arku modalitate bakoitzean. Amaieran, lortutako puntuak zenbatzen dira, eta gehien dituenak irabazten du. Horrez gain, taldeen arteko sailkapena ere egiten da, talde bakoitzak lortu dituen puntuen arabera.

Eta zer moduz zabiltzate zuek?

Egia esan, nahiko ondo. Izan ere, lehenengo bi txandetan oso ondo aritu ziren Rafa Ugarte eta Esteban Ugarte, nor bere modalitatean.

Zertan desberdintzen dira maila edo kategoria horiek?

Arkuaren arabera bereizten dira. Hiru maila daude. Oinarrizko mailan, ikasteko hartzen diren arkuak erabiltzen dira, sinpleenak dira, egurrezkoak. Bigarren mailan, arku olinpiarrak daude. Horiek aluminiozkoak dira eta palak karbonozkoak dituzte. Zehaztasun handiagoa dute. Azkenik, hirugarren mailan, poleadun arkuak sartzen dira. Beste mekanismo bat daukate horiek, konplexuagoa. Zehaztasun handiena dutenak dira.

OIHANA ELORZA

Arku olinpiarrarekin aritzen da Gorka.

> "Kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da, baina edonork egin dezake"

> "Geziak, nahiz eta gaizki bota, beti berdin jaurti behar dira. Hori da gakoa"

Oñatin ere maila guztietan lehiatuko gara, nor berean.

Badago arkuarekiko zaletasunik Debagoienean?

Nahiko txikia. Gutxiengo batek egiten dugun kirola da. Guri, asko gustatzen zaigu eta egubakoitzero elkartzen gara, baina, tamalez, jende gutxi etorri da arkuarekin jaurtitzen ikasi nahi duela esanaz.

Gu duela lau urte hasi ginen kirol hau egiten. Durangon, aldiz, lehenago sortu zen taldea, eta han zaletasun handiagoa dago, agian. Hemendik kanpora, berriz, Frantzian asko praktikatzen da, baina, duda barik, Korea da gehien jokatzen den herrialdea. Han, oso errotuta dago kirol hau.

Kirol garestia da?

Bai, baina beste edozein kirol den bestekoa. Dena dela, ikasi nahi duenari, hasiberriari, guk uzten dizkiogu arkuak.

Araban oraintxe zabaldu dute arkuak eta bestelakoak saltzen dituen denda espezializatu bat. Bestela, Kantabrian eta Asturiasen ere eros daitezke.

Eta zer dohain behar dira arku tiratzaile ona izateko?

Oso garrantzitsua da pertsona lasaia izatea. Kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da, eta lasaitasunak asko laguntzen du. Pultsu ona ere izan behar da, baina ez du batere zailtasunik. Edonork ikas dezake. Durangon, zortzi edo bederatzi urte dituen neskatila bat aritzen da, eta 60 urtetik gorakoak ere ikusi izan ditut.

Kirol honek kontra duen gauza garrantzitsuena haizea da. Kanpoan, 30-50-70-90 metrotik botatzen ditugu geziak. Jakina, gezi guztiak ez dira berdinak, baina haizeak asko baldintzatzen du.

Pultsua, ikusmena eta punteria ona dira gakoak?

Beti zentzu berean bota behar dira geziak. Punteria ona izan arren, ez badituzu geziak berdin botatzen, ez duzu ezer egiten. Hori da kontua, beti zentzu berean bota behar direla. Horrela, nahiz eta gaizki bota, beti joango dira geziak toki berera, eta egiten duzun akatsa beti bera izango da. Gero, saiatu behar da ahalik eta akats txikiena egiten, jaurtiketa perfektua izan dadin.

Zenbat aldiz esan dizute *Robin Hood*-en filmeko eszena egiteko?

Askotan eskatu didate, bai, baina hori pelikulako kontua da, efektuekin lortzen dena.

Kirolabur

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Derbia izango da domekan Oñatiko Azkoagain futbol zelaian. Aloña Mendik eta Aretxabaletak elkarren aurka jokatuko dute, 16:30ean. Partidu garrantzitsua izango da, beraz, asteburuan. Une honetan, Aloña Mendi seigarren postuan dago sailkapen nagusian, eta puntu bakarra ateratzen dio Aretxabaletako taldeari. Arrasatek eta Bergarak, berriz, etxean jokatuko dute. Lehenak Trintxerpe hartuko du eta bigarrenak, Hondarribia. Bost punturen barruan daude preferente mailan jokatzen duten Debagoieneko lau taldeak.

ESKALADA/OÑATI

Aloña Mendi Eskalada taldeko kideek eskalada ikastaroa antolatu dute asteburu honetarako. Zapatuan izango da ikastaroa, Zubikoa kiroldegian, goizeko 10:00etan hasita. Eskalada ezagutu eta kirol hura egiten hasi nahi dutenentzat da ikastaroa. Eskaladako materiala erakutsiko diete, korapilo motak nola egiten diren ikasiko dute, ekipoa nola jarri... Udaberri aldera bigarren ikastaro bat izango da, eskaladaren urrats gehiago erakusteko.

AEROBIK/ELGETA

Aerobik zerbitzua eskainiko du Elgetako Udalak datorren martxotik aurrera. Bi talde osatuko dira: nagusien taldea eta gazteen taldea. Talde biak martxoaren 8an hasiko dira, eta kiroldegiko gimnasioan egingo dute aerobika. Egutegia, ordutegia eta ordaindu beharrekoa, aldiz, ezberdina du talde bakoitzak. Izena emateko epea zabalik dago.

KIROL TXAPELKETA/ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko kirol zerbitzuak kirol txapelketa antolatu du martxoaren 3rako. MUko kirol taldeen arteko partiduak izango dira, eta MUko fakultateetako ikasleek hartuko dute parte. MUk Euskadiko unibertsitateen arteko txapelketan hartuko du parte, martxoaren 4an, Barakaldon.

TXIRRINDULARITZA/LEINTZ GATZAGA

Dorletako Ama txirrindulari eskolak taldeen aurkezpena egingo du zapatuan, 10:30ean. Urtero bezala, lore eskaintza egingo diote Dorletako Amari, santutegian.

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun. Egin zaitez zu ere!

ENCARNA MENDEZ |
YOGA IRAKASLEA, ARETXABALETA

"Gainontzeko egunkariek urrutiagoko notiziak ekartzen dituzte. GOIENKARIAk, aldiz, bertakoak, eta horiek besteak adina interesatzen zaizkit. Etxean pozik jasotzen dugu, baita astelehenekoa ere".

BASILIO ORMAZABAL |
EAJ, ANTZUOLA

"Orain arte jasotako *Asteleheneko Goienkaria*-n, garbi gelditu zait, ibarrean itxurazko aldizkari bat egiteko adina notizia gertatzen direla asteburuetan gure ibarrean. Denak animatzen ditut".

JON KEPA ZUBILLAGA
GUREA TABERNA, ARETXABALETA

"Proiektu berri hau oso ondo ikusten dut. Orain arte ez zegoen aukerarik euskarazko prentsa astelehenetan irakurtzeko, eta orain bai. Gainera, herriko eta inguruko berriak beti irakurtzen dira gustura".

MILA ANDUEZA |
BERGARAKO ORFEOIA, BERGARA

"Egia esan, ez nuen garbi ikusten bigarren aldizkari bat ateratzeko beharrik ote zegoen edo ez. Gehiegitxo iruditzen zitzaidan ibarrean aldizkari bi jasotzea astean. Gerora hobetuko dela espero dut".

MAIDER ARREGI |
KAZETARIA, OÑATI

"Asteburuan gertatzen den guztia jasotzen du. Ibarreko ekitaldi eta jardunaldi guztien berri ematen du. Oso osatua dela iruditzen zait, eta notiziak ondo landuta daudela. Gertatu dena jakiteko bide ona".

SABRINA PATO |
GAZTETXEKO KIDEA, BERGARA

"Gustura hartu dugu. Astean bi aldiz gure ibarreko berriak euskaraz jasotzea atsegina da, oso. Gainera, *goiena.net* helbidearen bitartez ere, kanpoan bizi denak Debagoieneko notiziak irakurri ahal ditu".

JOXEPA ARREGI |
ETXERAT-EKO KIDEA, ARRASATE

"Ikusi ditut kaleratu berri diren zenbakiak, baina egia esan, ez dut tarterik aurkitu behar den bezala irakurtzeko, lau iloba txiki ditut-eta. Dena dela, oso egitasmo interesgarria dela uste dut, ondo ikusten dut".

MIKEL JAUREGI |
IKASLEA, ANTZUOLA

"Inauterietako argazkiak asko gustatu zaizkit. Baita *fotonobela* ere. Antzuolako ikasleen gainekoa irakurri nuen. Mutiko bat arrantzara joan zen eskolara joan beharrean, eta zapo handi bat arrantzatu zuen".

TOMAS LIZARRALDE |
HARAKINA, OÑATI

"Aldizkari berri hau beharrezkoa dela uste dut. Egubakoitzetan banatzen den GOIENKARIA gustura irakurtzen dugu denok etxean, eta orain, baita astelehenekoa ere. Bestearen osagarria da hori".

NURIA AGIRRE |
LORAMENDI ELKARTEA, ARETXABALETA

"Euskararen alde aurrerapausoa da, dudarik gabe. Produktu berri honekin norbaitek irabazten badu, hori euskara da. Bestetik, harpidetza formula erabiltzeak erronka da guztiontzat".

JOSE LUIS EGIZABAL |
LANGILEA, ELGETA

"Oso erraza egin zait irakurtzeko. Albiste ugari dakartza, batzuk nahiko labur, baina ondo laburbilduta. Argazki asko ditu. Gurasoek ere gustura irakurtzen dute, hemengo notiziak dira-eta".

LEIRE APERRIBAI |
EKIN EMAKUME TALDEA, ARRASATE

"Fotonobelaren ideia berreskuratzea asko gustatu zait. Horrela, ibarreko gazteenek ere parte hartzen dute egitasmo berrian. Bestetik, astelehenero etxean jasoko dugu asteburuak gurean eman duena".

JOXE ARRIETA |
ARITZETA ABESBATZA, BERGARA

"Herriko eta Debagoien osoko notiziak beste edozein egunkarik baino gehiago eta osatuago ekartzen ditu honek, gertatzen den guztia jasotzen du-eta. Benetan, oso produktu ona dela iruditzen zait".

AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN |
DIETISTA, OÑATI

"Kontsultan beste era bateko aldizkariak izaten dira normalean, baina hau ere hantxe uzten dut, ondoko herrien berri ere ematen digulako. Gai konkretuei buruzko gehigarriak jasoko nituzke".

MATEO MADARIAGA |
GOROSTI TABERNA, ANTZUOLA

"Beti doan jaso dugu etxean GOIENKARIA. Hemendik aurrera, berriz, ekonomikoki laguntzeko garaia ere bada, eta hori egin behar dugula uste dut. Oso pozik jaso dut aldizkari berria, etxean hau ere".

Astekoak

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Elurra, eguzkia, okela eta mozorroa Aratusteetan

Egur-zaldiak ez du ardo lagunaks hartikoan eta zapatuaren; domeduan, ostera, eguzkia nagusi

ARETXABALETA, GURE 'TOLOSA' TXIKIA

Eguraldi txarrak ez zuen Euskal Okela Festa zapuztu

Lausardi Koru Sinfonikoak Kursaalen abestu zuen zapatuan

Aretxabaletako Errasti anaiak gogo betean

Euskararen egoera salatu du EHEk

Zuhaitz Eguna Bergaran

Aratusteak luze eta zabal

Mardula zetorren azken ***Asteleheneko Goienkaria***. Ohikoa baino lodiagoa, 36 orrikoa. Izan ere, **Aratuste-asteburua** izanda, ekitaldi piloa antolatu ziren asteburuan geure ibarrean. Bat baino gehiago harrituta geratu da asteburuetan geurean gertatzen den guztia ikusita.

Ikusi eta leitu. Asteburu osoa astelehenean. Horixe izan nahi du *Asteleheneko Goienkaria*-k, eta helburu horri helduz, besteak beste, Aratusteetako argazki mordoa zekarren azken zenbakiak. Ibarreko herri guztietakoak, baina bereziki **Aretxabaletakoak.** Sekulako giroa sortzen da han **Aratuste-domekan,** eta aurten, gainera, zorte handia izan dute aretxabaletarrek, eguraldiagatik. ***Piratak, troiatarrak, Frantziako Iraultzakoak, Grease*** pelikula mitikoan agertzen ziren pertsonaiak, ***Erdi Aroko neskak***... Denetakoak Aretxabaletan domekan, eta astelehenean *Asteleheneko Goienkaria*-n.

Asteleheneko Goienkaria-ko lantaldeak badihardu astelehenean banatuko den zenbakia prestatzen. Arrasaten egingo den **skate erakustaldia**, **Euskal Herrian Euskaraz** taldeak epaitegiak euskalduntzea aldarrikatzeko egindako deia, **Elkarriren** sinadura batzea, **Aloña Mendi** eta **UDA**ren arteko preferente mailako futbol derbia... Hauek dira hurrengo zenbakiak luze eta zabal jorratuko dituen ekitaldi batzuk. Baina beste hainbat kontu ere ekarriko ditu. Gogoratu, bada, irakurle, egunkarien ohiko saltokietan eskura dezakezula; bestela, etxera edo eskatzen duzun tokira eroango dizugu, gutxiago ordainduta.

Ohi baino lodiagoa, 36 orrikoa, zetorren AGren azken zenbakia, astelehenean

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a



EGIN TXOTX! sagardotegietan

Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL 943 58 09 74

- Urtarriletik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik

Gurutzeta

Oialume bidea 63 / ASTIGARRAGA
943 55 22 42

- Urtarriletik apirilaren 17ra arte zabalik
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- Janaria eraman daiteke
- Zutik jateko sagardotegia
- 150 lagunendako tokia

Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- **"Tolare" sagardotegia**

Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik

Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- Martitzen eta eguaztenetan itxita
- 55 lagunendako lekua

Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Kazuelak (bakailaoa saltsan eta tomatearekin),aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan zabalik
  Aste bukaeran egun osoa zabalik
- Astelehen eta domeka gauean itxita
- **"Tolare" sagardotegia**

Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Urte osoa zabalik
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Zabalik: Aste barruan iluntzean, zapatuetan egun osoa eta igandetan eguerdian.
- **"Tolare" sagardotegia**

Uxarte

Montorra 6 / ZORNOTZA
94 630 88 15

- Bizkaiko sagardoa
- Asteburuetan urte osoan zabalik
- Astegunetan enkarguz
- Sagardotegiko menua
- 80 lagunendako lekua
- **"Sagardaogintza"**

Zabala

Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz bakarrik.
- Bertako janaria.
- 150 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- **"Tolare" sagardotegia**

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a

Kultura eta aisialdia

Otsailaren 27tik martxoaren 5era

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA

EKIALDEKO OSABIDEAK IKASTEKO AUKERA ARRASATEN

Duela 3.500 urtetik hona, Txinako Medikuntza Tradizionalak bere sendaketa sistema finkatu du. Medikuntza horren eraginkortasuna dela eta, gaur egunera arte iraun du.

Txinako Medikuntza Tradizionala naturaren eta bere elementuen behaketa zehatzetik sortu zen. Horiek dira, hain zuzen ere, Txinako Medikuntza Tradizionalaren zutabe nagusiak. Mendebaldeko Medikuntza moduan, Txinakoa ere ezin hobeto egituratuta dago; fisiologia bat, etilogia bat, diagnostiko bat eta tratamendu bat aurkituko ditugu.

Txinako Medikuntza Tradizionalak garapen ezberdina izan du lekuaren arabera. Hala, japoniarrek Txinako Medikuntza Tradizionalean oinarritutako Japoniako Akupuntura garatu zuten. Betiko akupunturatik ezberdintzen da Japoniakoa; orratz meheak erabiltzen dira eta orratzik gabe ere egin daiteke tratamendua, ukimenaren bitartez. Japoniako itsu batzuek garatu dute terapia hori azken 90 urteotan.

Arrasateko ikastaroan bi gauza horiek irakatsiko dira: Txinako Medikuntza Tradizionala eta Japoniako Akupuntura. /15 USOA AGIRRE



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a

IKASTAROA / TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALAREN OINARRIAK ETA JAPONIAKO AKUPUNTURA

Minik egiten ez duen akupuntura

TXINAKO MEDIKUNTZA ETA JAPONIAKO AKUPUNTURA IKASTEKO AUKERA DAGO ARRASATEN, EUGENIO RAMOS ADITUAREN ESKUTIK

USOA AGIRRE

Duela 3.500 urtetik hona, Txinako kulturak medikuntza sistema bat finkatu du. Bere eraginkortasuna dela-eta, gaur egunera arte iraun du Txinako Medikuntza Tradizionalak. Hainbat lekutan ezberdin garatu da medikuntza hori. Hala, Japoniako Akupuntura sortu zen.

Medikuntza txinatarra milaka urtetan iraun duen tradizioa da eta oso gutxi aldatu da azken mendeotan. Medikuntza txinatarraren arabera, bizi-energia bat dugu guztiok gorputzean —Qi izenekoa— eta energia hori gorputzetik ondo igarotzea da osasunaren oinarria. Energia horrek edozein desoreka jasanez gero, gaixotasunak eta minak sortzen dira. Desoreka hori, baina, kontrako eta osagarri diren bizi-indarrak desorekatzean ere gerta liteke, bakoitzaren *ying* eta *yang*-a desorekatzean, hain zuzen ere.

Txinako medikuntza tradizionalaren arabera, oreka lortzeko gorputzeko organoen eta lurreko elementuen arteko harremana erregulatu egin behar da. Oreka hori lortzeko hainbat tratamendu erabil daitezke. Hala nola, akupuntura, moxibustioa —belar orriak gorputzean erretzea—, masajea eta fitoterapia —sendabelarrak—.

USOA AGIRRE

Japoniako Akupunturan ukimenaren bitartez eta orratz mehe batzuekin egiten da tratamendua.

JAPONIAKO AKUPUNTURA

Akupuntura Txinako Medikuntza Tradizionalaren tratamenduetako bat da. Orratz meheak sartzen dira gorputzean, puntu berezi batzuetan. Gorputzak energia behar du funtziona dezan, eta energia hori, jaten dugunak, urak, oxigenoak eta argiak ematen digute. Akupunturaren arabera, energia hori gure gorputzeko kanal batzuetatik igarotzen da, *meridianoak* izeneko kanaletatik.

Keiraku Chiryo edo meridianoen terapia ere deitzen zaio Japoniako Akupunturari. Medikuntza hori oso gaztea da oraindik, azken 100 urteotan Txinako Medikuntza Tradizionalak Japonian izan duen garapenari esker sortu da. Hain zuzen ere, Japoniako itsu batzuek egindako lanari esker sortu da terapia berri hori. Meridianoen terapiarekin ez dago orratzak erabili beharrik; gorputzeko pultsua aztertuz, abdomena ukituz eta behaketa orokor baten bitartez, gaixoaren egoera zein den jakiten da.

MINIK GABEKO AKUPUNTURA

Gaixoaren egoera zein den jakin ondoren, gorputzeko energia orekatzen saiatzen dira, pultsuek emandako informazioan oinarrituz. Terapia horren bidez, gaixoak ez du minik jasaten. Izan ere, minagatik uzten diete gaixo askok akupuntura saioetara joateari.

Eugenio Ramosek Arrasaten antolatu duen ikastaroan Japoniako Akupuntura edo *Keiraku Chiryo* ikasiko dute kurtsoan parte hartzen dutenek. Ukimenaren bidez eta orratz japoniarrekin —oso txikiak, 1 edo 2 milimetro sartzen dira gorputzean— gorputzeko energiaren zirkulazio librea bideratzen ikasiko dute. Hala, minik gabeko akupuntura egin ahal izango dute.

Ikastaroan edozeinek eman dezake izena, eta ez da beharrezkoa aurretik medikuntza alternatiboan ezagutzaren bat izatea. 135 orduko ikastaroa izango da; 15 hilabete iraungo du eta hilabetean behin izango dira eskolak, zapatuetan. Txinako Medikuntza Tradizionalaren gainean eta Japoniako Akupunturaz zerbait jakiteko aukera duzu orain.

Izena emateko

IRAKASLEA
Eugenio Ramos Merino, Txinako Medikuntza Tradizionalean eta Fitoterapian diplomaduna; osteopata, kinesiologoa eta masajista ere bada.

LEKUA
Bizkaia hiribidea, 12-2 esk. Arrasate. Eugenio Ramosek bertan du kontsulta.

HASIERA
Martxoaren 13an hasiko da ikastaroa.

IRAUPENA
135 orduko iraupena izango du ikastaroak eta 15 hilabetean emango da; hilean zapatu baten.

IZENEMATEA
Martxoaren 5a baino lehenago eman beharko da izena, kontsultara bertara deituta. Tel.: 943 79 81 62. 60 euro ordaindu beharko ditu bakoitzak.

ZIURTAGIRIA
Ikastaroan parte hartzen duten guztiek ADENOTen ziurtagiria jasoko dute.

EUGENIO RAMOS / TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALEAN DIPLOMADUNA

"Gaixotasun oro sendatzen du medikuntza honek"

Eugenio Ramosek emango du Txinako Medikuntza Tradizionala eta Japoniako Akupunturaren gaineko ikastaroa. Txinako Medikuntzan eta Fitoterapian diplomaduna da. Osteopata, kinesiologoa eta masajista ere bada. Arrasaten duen kontsultan emango du ikastaroa.

Zer ikasiko du ikastaroan izena ematen duenak?

Txinako Medikuntza Tradizionalaren testu klasikoak aztertuko ditugu lehenbizi, batez ere *Nan Jing*-a. Horrez gain, Japoniako Akupuntura ere ikasiko du datorrenak, *Keiraku Chiryo* terapia, hain zuzen ere. Terapia horrekin gorputzean ditugun pultsuak interpretatzen ikasiko dugu eta, bereziki, pultsu ertaina interpretatzen ikasiko dute bertara datozenek. Pultsu ertaina da barruko organoen eta meridianoen arteko energiaren egoeraren adierazlea.

Japoniako Akupunturan, orduan, ez da orratzik erabiltzen?

Bai, erabiltzen dira, baina oso txikiak dira, normalean akupunturan erabiltzen direnak baino txikiagoak dira. Japoniako Akupunturaren ezaugarri nagusienetakoa minik ez dela eragiten da. Orratz txiki horiekin eta ukimenaren bidez, energiaren jarioa erregulatzen ikasiko dugu.

Nolatan sortu zitzaizun Txinako Medikuntzarekiko interesa?

Duela hogeita bost bat urte oso gertaera latzak gertatu zitzaizkidan eta nire bizitzarekin zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Yogako eskoletara joaten hasi nintzen lehenbizi eta gero, pixkanaka, Txinako Medikuntza ikasteari ekin nion. Nire kontutik ikasi dut orain dakidan gehiena. Gaur egun, oso eskola gutxi daude Txinako Medikuntza Tradizionala erakusten dutenak, eta Txinara edo Japoniara joan beharra dago. Ikastaro honen bidez, nik urtetan ikasi dudan guztia erakutsi nahi diet interesa duten guztiei.

Eugenio Ramos.

Edozein gaixotasun sendatzeko balio du Txinako Medikuntza Tradizionalak?

Bai, bai. Gaixotasuna edozein motatakoa izanda ere, medikuntza txinatarraren bidez senda daiteke: digestio arazoak, arnasketa aparatukoak, odolekoak, gaixotasun psikologikoak, alkoholismoa eta beste hainbat gaixotasun edo desoreka sendatu daitezke medikuntza txinatarraren bidez.

Tratamenduak ere asko izan daitezke.

Hainbat tratamendu erabiltzen ditu Txinako medikuntzak: akupuntura, moxibustioa —beroarekin egiten da—, masajea eta fitoterapia —sendabelarrekin—.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a

Ots. 27-Mar. 5

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Karidadeko Benta** Jon Maiaren taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Kurtzebarri eskolan, 22:30ean.

ARRASATE

► **Skifaia** irlandar folk taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Dublin pubean, 23:30ean.

BERGARA

► **Michael Schenker Group eta Tea** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.
► **Zea Mays eta Zein** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.
► **Presidents (Tarragona) eta Exhale (Gasteiz)** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.
► **Morbid Angel eta Krisiun** taldeek kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan. Sarrera 20 euro kostatuko da.

OÑATI

► **Josh Rouse eta Morau** musikariek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean. Sarrera 5 euro kostatuko da.

DEIAK

ARAMAIO

► ***Shakespeare enamorado*** filma eskainiko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:30ean. Sarrera euro bat kostatuko da.

ARETXABALETA

► **Julian Retegi, Aimar Olaizola eta Iñigo Simon** etorriko dira Muru-Alde elkartera hitzaldia egitera martitzenean, hilak 2, 19:00etan.
► **Luz Ardidenera eski irteera** egingo du Murrukixo elkarteak martxoaren 6an eta 7an. Izena emateko, jo euren egoitzara martitzenean, 19:00etatik 20:00etara.

ARRASATE

► **Ludoteka ibiltaria** Musakolan (San Antolin egoitzan) egongo da bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era.
► **Ekin Emakumeak** taldeak batzar nagusia izango du martxoaren 4an, eguena, Pablo Uranga kaleko euren egoitzan, 18:30ean.
► **Zuhaitz landaketa eguna** egingo dute egubakoitzean, hilak 5, Uribe auzoan, 10:00etan. 6. mailako ikasleek eta erretiratuek parte hartuko dute.

BERGARA

► **Estatu espainiarraren politika salatzeko** ekitaldia egingo du Batasunak bihar, zapatua, Olaso dorrearen eta udaletxearen arteko eremuan, 13:00etan.
► **Justiziaren euskalduntzea** eskatzeko agerraldia egongo da bihar, zapatua, Herriko Plazan, 18:00etan.
► ***Euskal Herria aitortu, errespetatu, espainiar eta frantziar inposaketari ez*** leloarekin, kale bilkura egingo du Batasunak martxoaren 1ean, astelehena, San Martin plazan, 19:30ean.
► ***La construcción del camino real de coches en el siglo XVIII*** hitzaldia egingo dute martitzenean, hilak 2, seminarioan, 19:30ean.
► **Larrea-Arantzazu** mendi irteera egingo dute Alpino Gorla eta Pol-Pol taldeek etzi, domeka. Frontoian elkartuko dira, 08:00etan.
► **Odol-ateratzeak** egingo dituzte eguaztenean, martxoak 3, seminarioan, 18:30ean.

DEBAGOIENA

► **Gipuzkoako 58ko kintoek** bilera egingo dute etzi, domeka, Loiolan. Meza izango dute Santutegian, 13:00etan, eta bazkaria Kiruri jatetxean. Deitu 943 81 56 08ra.

OÑATI

► ***Hijo: cuídate*** hitzaldia egongo da eguenean, martxoak 4, Elkar Hezi ikastetxean (Santa Marina plazan), 19:00etan. 12-18 urte bitartekoen gurasoendako da.
► **Ingurumen astea** antolatu du Natura Eskolak martxoaren 1etik 14ra bitartean. Martxoaren 1ean, 3an eta 5ean, hitzaldi bana egongo da euren egoitzan, 19:00etan.
► **Grafologiaren inguruko hitzaldia** egingo du Blanca Sedano adituak egubakoitzean, hilak 5, kultura etxean, 20:00etan.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Euskal dantza** ikastaroak daude abian. Argibideetarako, jo Gazte Informazio Zerbitzura.
► **Txinako medikuntza tradizionala eta japoniar akupuntura** ikastaroa hasiko da martxoaren 13an. 135 ordu iraungo du eta Adenot diploma jasoko dute bukatzen dutenek. Eugenio Ramosek emango ditu eskolak. Izena emateko, deitu 943 77 06 22 edo 645 70 17 27 telefonora.

OÑATI

► **Langabeendako ikastaroak** antolatu ditu Zuazola-Larraña institutuak martxotik aurrera. Argibideetarako edo matrikula egiteko, deitu 943 78 21 50 telefonora. Ikastaroak martxoaren 15ean hasiko dira, eta izenemate epea zabalik dago.
► **Umeei masajeak ematen** ikasteko jardunaldiak antolatu ditu Elkar Hezi ikastetxeak martxorako. Izenematea euren haurtzaindegian edo 943 71 82 72 telefonora deituta egin daiteke.

► KONTZERTUAK

KARIDADEKO BENTA, JON MAIAREN TALDEAREN EMANALDIA GAUR

Orain dela urte pare bat koplak eta bertsoak kantatzeko sortu zen Karidadeko Benta taldea Jon Maia bertsolariaren inguruan. Euskal doinuez gain, Marokora, Iranera, Karibera eta Andaluziara jo zuten kantak konposatzeko inspirazio bila. Orduko egitasmoak aurrera egin zuen, eta joan den Durangoko Azokan arrakasta handiz aurkeztu zuen taldeak bere lehen diskoa. Orain, Debagoienera datorkigu taldea. Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza,22:30ean, eta sarrera 3 euro kostatuko da. Euskal rumba izeneko estiloa jorratzen du talde horrek; munduko hainbat herrialdetako doinuen eragina jasotzen duten abesti goxoak dira.

Non: Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan. **Noiz:** otsailaren 27an, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean. **Sarrerak:** 3 euro.

‘DIVINAS’ LANA ESTREINATUKO DU OIHULARI KLOWN TALDEAK GAUR

Gaur, egubakoitza, *Divinas* muntaia berria estreinatuko du Oihulari Klown antzerki taldeak. Bergarako Zabalotegi aretoan izango da, 22:30ean. Sarrerak bertan egongo dira salgai, 6 eurotan. Denboran aurrerago, Mondragoen ere lan hori eskaintzeko asmoa du taldeak. Hemen, Jesukristo, Ama Birjina eta Maria Magdalena dira protagonistak. Hainbat arazo dituzte, eta terapia psikologikoa egitea erabakiko dute.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► ***Biodibertsitatea*** erakusketa ikusteko aukera izango da Monterronen, martxoaren 1etik 15era arte, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara. Bi atal izango ditu: ekosistemen ingurukoa bata, eta entomologia (intsektuak) landuko duena, bestea. Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-20:00.

OÑATI

► ***500 milioi urte Euskal Herrian*** erakusketa dago zabalik Natura Eskolan, martxoaren 1etik 21era bitartean. Euskal Herriko historian sakontzeko aukera izango dugu fosilen bitartez.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **Komertzio txikiaren inguruko** margo lehiaketa deitu du Bedelkarrek. Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dituzue apirilaren 1etik 30era bitartean. 18 urtetik gorako kategorian, 1.000 euroko sari bat banatuko dute; hortik beherako taldeko onenari, 300 euro.

► **Koldo Eleizalde literatura lehiaketa** deitu du Euskara Batzordeak ipuin, olerki, komiki eta antzerki kategoriatan. Apirilaren 21era arte duzue aukera lanok entregatzeko, Udaleko Euskara sailean. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 91 66 telefono zenbakira.

► **Mendekoste jaietako** kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Derrigorrezko testua da *Pentekoste jaiak 2004 Bergara*. Eraman lanok kultura etxera, martxoaren 31 baino lehen. 600 euroko sari bat banatuko dute. Lan guztiekin erakusketa antolatuko dute.

ANTZERKIA

BERGARA

► ***Divinas*** antzezlana estreinatuko du Oihulari Klown taldeak gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Sarrerak 6 euro kostatuko dira.

ESKORIATZA

► ***Harriola marriola*** muntaia ikusteko aukera izango dugu gaur, egubakoitza, Unibertsitatean, 22:00etan. Koldo Amestoy ipuin kontalariak egingo du.

OÑATI

► **Tim eta Cas** ipuin kontalarien emanaldia egongo da hilaren 3an, eguaztena, kultura etxean. Bi saio egongo dira: 17:30ean, 9-10 urtekoei zuzendutakoa; 19:30ean, helduendako.

Zinema

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Las mujeres de verdad tienen curvas
Egubakoitza, hilak 27, zinekluba: 20:30.

El último samurai
Zapatua eta domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena: 20:30.

El Cid (euskaraz)
Domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Las chicas del calendario
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Las invasiones bárbaras
Eguena, zinekluba: 20:00.

OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEMA**

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 22:00.
Domeka: 17:00, 22:00.
Astelehena: 19:30.

El color del paraíso (J.B.A.)
Eguena, zine-kluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El jurado
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

The company
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Monster
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Lost in translation
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Las voces de la noche
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

El jurado
Egunero: 20:00, 22:30.

Cold mountain
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:40, 22:30.

La mansión encantada
Egunero: 17:30.

Las invasiones bárbaras
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.

La joven de la perla
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitzetik domekara: 16:45.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

La mansión encantada
17:05, 19:50, 22:35.

Mystic river
17:00, 19:45, 22:45.

Bajo el sol de la Toscana
17:15, 20:00, 22:30.

El último samurai
17:00, 19:45, 22:45.

21 gramos
17:15, 20:00, 22:30.

Ciudad de Dios
17:15, 20:00, 22:30.

Doce en casa
17:30, 20:15, 22:45.

Me llaman Radio
20:00, 22:30.

Prop & Berta (euskaraz)
17:15.

Seabiscuit
17:00, 19:45, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Thirteen
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.

Vías cruzadas
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

La vida que te espera
Egubakoitzetik domekara: 19:45.

Zatoichi
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cachorro
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cuando menos te lo esperas
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

21 gramos
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Casa de arena y niebla
Egubakoitzetik domekara: 19:45.

Ciudad de Dios
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

Buscando a Nemo
Zapatua eta domeka: 17:00.

El jurado
16:30, 19:30, 22:10, 00:45.

Escuela de rock
16:30, 19:15, 22:15, 00:45.

Matar a un rey
16:05, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Master and commander
16:20, 19:15, 22:10, 01:00.

El último samurai
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Paycheck
16:45, 19:30, 22:20, 00:45.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
16:00, 20:00, 00:10.

La sonrisa de Mona Lisa
17:00, 19:45, 22:05, 00:30.

Cold mountain
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 23:00.
Domeka: 17:20, 21:00.

Gothika
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Cuando menos te lo esperas
12:15, 17:00, 19:30, 22:15, 00:40.

Seabiscuit
12:15, 16:00, 19:00.

Lost in translation
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

El jurado
17:15, 19:45, 22:30, 00:50.

Cold mountain
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:20.
Domeka: 16:00, 19:00, 22:00.

El último samurai
12:15, 15:45, 18:45, 21:45, 00:30.

Monster
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Buscando a Nemo
Egubakoitza eta zapatua: 16:15.
Domeka: 12:15, 15:30.

La mansión encantada
12:15, 16:45, 18:30, 20:15, 22:05, 00:00.

El tesoro del Amazonas
20:05, 22:10, 00:15.

El Cid, la leyenda
12:15, 16:20, 18:00.

Master and commander
22:00, 00:45.

Doce en casa
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Los Reyes Magos
12:15, 15:45.

Paycheck
20:15, 22:30, 00:45.

Looney tunes
12:15, 16:05, 18:15.

Escuela de rock
12:15, 15:50, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La mansión encantada
12:30, 16:10, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Cuando menos te lo esperas
12:00, 17:15, 19:55, 22:35, 01:10.

Gothika
12:25, 16:25, 18:30, 20:35, 22:45, 00:55.

Cold mountain
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

La sonrisa de Mona Lisa
12:10, 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

La casa
17:20, 19:45.

El último samurai
12:15, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Las chicas del calendario
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.
Zapatua: 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.
Domeka: 18:15, 20:30, 22:45.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitza eta zapatua: 12:10, 16:00, 19:45, 23:30.
Domeka: 17:00, 21:00.

El Cid: la leyenda
Zapatua eta domeka: 12:25, 16:30.

Bajo el sol de la Toscana
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:45.

Seabiscuit
22:15, 01:00.

Buscando a Nemo
Zapatua eta domeka: 12:15, 16:00.

Doce en casa
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Haz conmigo lo que quieras
12:20,16:15, 18:20, 20:20, 22:30, 00:35.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, bakarrik zapatu eta domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Mystic river: ●●●●● / ***21 gramos:*** ●●●● / ***Buscando a Nemo:*** ●●●● / ***Casa de arena y niebla:*** ●●● /***El señor de los anillos 3: el retorno del rey:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

LA JOVEN DE LA PERLA

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Peter Webber.
AKTOREAK: Scarlet Johansson, Colin Firth.

La joven de la perla sentimenei buruzko filma da. Zuzendariak, irudiak —Eduardo Serraren argazkia liluragarria da— eta soinuak maisutasun handiz erabiliaz, ikuslea bereganatzen du, sekretua, etereoa eta sentsualitatez beteriko unibertso baten murgilduz. Istorioak, itxuraz, mundu desberdinetako bi pertsonaiari buruz hitz egiten digu: Vermeer margolaria eta bere neskame gaztea. Baina senak eta artea sortzeko eta ulertzeko ahalmenak bi pertsonaiak harreman asaldatzaile baten bitartez elkartuko ditu, eta, era berean, harreman horiek beste pertsonaien jeloskortasuna piztuko dute. Euren sentipenak ezkutatzen, gutxi hitz egiten eta asko begiratzen duten pertsonaiak dira. Margolaria, bere emaztea, horien alaba edo neskame gaztea leihoaren zehar, atearen edo gortinaren atzetik zaratarik egin gabe agertuz begira ikusten ditugu: zer ikusten duten eta ikusitakoa eurengan duen efektua erakusten zaigu. Aktoreentzat erronka ederra da euren grinak kanporatu nahi ez duten pertsonaien sentimendu erreprimituak azaltzea. Webber-ek oso ondo lotutako eta argitutako istorioa egin baino gehiago, pertsonaien arteko harremanak iradoki nahi ditu; baita momentu bakoitzeko atmosfera eta iheskortasuna islatu ere: bat-batean kanpora ateratzen diren sentimenduak, topo egiten duten begiradak, leuntasun handiz hurbiltzen eta ukitzen diren behatzak, masailetik labaintzen den negar-tanta, edo ileen edertasuna erakusten duen argia, istorio sekretu eder hau sortzen duten pintzelkadak dira.

La joven de la perla zentzuen gorespena da: argien eta itzalen arteko jokoa; zerbitzarien jantzien (argiak eta latzak) eta jaunen jantzien (kolore bizikoak) arteko desberdintasuna; argiaren izpiak gela batzuk argitzen; kandelen argia edo beste gela batzuen iluntasuna; pintzelaren soinua; pausoak lurrean, ura eta garbitzen den arropa harrian igurzterakoan edo materialak margoetan bihurtzeko egiten diren zaratak. Osagai horiek irudiak eta soinuez osatutako mundu bat sortzen dituzte, eta ikuslea sekretua eta magikoa den istorioan murgiltzen dute.

ANTONIO ZABALA

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxebizitza salgai. 63 m². 652 70 57 91.

Aretxabaleta. 90 metro koadro ditu. 12 metro koadroko trastelekua eta garajea. 943 79 16 43 edo 665 73 25 74.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai. 80m². Eguzkitsua. Hiru logela eta egongela. Gas natural bidezko berogailua. Deitu 17.00 eta 20.00 artean. 617 58 45 22.

Arrasate. Olarte kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Prezio interesgarria. 656 75 71 96.

Arrasaten. Etxebizitza salgai Erguinen, Udalpe kalean. Berehala sartzeko. Telefonoa: 647 29 93 44.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berrituta. Altzariekin. Ganbara ere badu. 618 02 63 47.

Bergara. Etxebizitza salgai, Zubiaurren. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 943 76 71 12.

Bergara. Etxebizitza salgai. Telefonoa: 605 72 85 31 edo 615 79 41 02.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai erdialdean. 81 m². Terraza eta balkoia. Gela guztiak kanpora begira. Eguzkitsua. Igogailua. 665 71 78 62.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Etxebizitza ematen da errentan hiri erdialdean. Bi logela, igerilekua, garajea. 666 67 06 94.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza ematen da errentan. Leku ezin hobean. Hondartzatik oso-oso gertu. 670 37 71 03 edo 945 25 91 74.

Donostia. Etxebizitza errentan ematen da Antigua auzoan udarako. 943 31 47 91.

Peñiscola. Apartamentua ematen da errentan Aste Santuan eta udan. 943 77 19 09.

Peñiscola. Aste Santurako eta uztailerako etxebizitza ematen da errentan. Hondartzatik gertu. Aparkalekua du. 943 79 48 82.

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Etxe handia eta garbia. Espaloian. 605 77 51 82.

Bergara. Logela bat ematen da errentan, Bolun. 678 37 51 92.

Bergara. Logela bat hartuko nuke errentan. 665 70 10 57.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garaje itxia salgai prezio onean. 670 49 87 40.

Arrasate. Zerrajeran garaje itxia. 19x21 m. 646 92 24 23.

Bergara. Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Aranerreka kalean garajea alokatuko nuke. 943 76 46 54.

Oñati. Garaje itxia ematen da errentan Moiua kalean. Auto batendako lekua. 943 78 21 58.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garaje bat hartuko nuke errentan Kale Zaharra edo inguruetan. 600 57 50 93.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Kalealdea kalean lokala salgai. 70 m². Ura eta argia. 943 79 76 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da umeak zaintzeko. Ana. 618 00 89 07.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 943 79 22 99.

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN TABERNAN LAN EGITEKO. 647 05 42 75

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA. 686 06 72 97

BERGARA

ZERBITZARIAK BEHAR DIRA PUB IRLANDAR BATERAKO. LASTER ZABALIK. 630 04 22 37

BERGARA

EMAKUMEA BEHAR DA SUKALDARI LAGUNTZAILE LANETARAKO. DOMEKAK, JAI. 943 76 15 59

BERGARA

SUKALDEAN GARBIKETA LANAK EGITEKO PERTSONA BEHAR DA. 943 76 50 99

ESKORIATZA

TABERNA ESKUALDATZEN DA. SUKALDEA ERABILTZEKO AUKERA. UNIBERTSITATE ONDOAN. 635 71 47 70

LEKUKOAK

BERGARAKO TOKI-EDER AUZOAN ISTRIPUA IZAN ZEN OTSAILAREN 12AN 21:30 INGURUAN, BIZIKLETA BAT ETA AUTO BATEN ARTEAN. LEKUKOEK DEI DEZATELA 625 70 62 74 TELEFONORA.

ARRASATE

SUSTATZAILEAK BEHAR DIRA MERKATARITZA ETXE HANDIETARAKO. 616 94 18 92.
CURRICULUMA BIDALI HONA: Olga Ibeas Ertzilla 8, 1. esk. 48009 BILBO

Korosti
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Simon Arrieta 70 m². Gertu.
- Masterreka 95 m². Oso ondo.
- Bolu 75 m². Egoera onean.
- Zubiaurre 70m². Gertu.
- Alkabieta 88m². Terraza 58m².
- Matxiategi 60 m². Ondo.
- Ozaeta 60 m². Berria.

Antzuola:
- Sagasti auzoa. 90m². Berria.

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Osintxun, Angiozarren eta Soraluzen.

Bergara. Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 943 76 08 08 edo 629 46 47 22.

402. ESKAERAK

Antzuola. Astelehenetik zapatura goizetan lan egiteko gertu nago. 20:00etatik aurrera deitu. 626 30 89 36.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasate. Orduka lan egiteko gertu dago emakume bat. 943 79 99 38.

Bergara. Etxebizitzak edo behebarruak garbituko nituzke. (Mari Carmen). 943 76 45 02.

Bergara. Mutil boliviarra lanerako gertu. Igeltsero laguntzaile, zerbitzari, baserrian... 677 05 99 99.

Bergara. Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko, arratsaldeetan. 653 71 79 03.

Bergara. Txoferra lanerako gertu. 677 05 99 99.

Debagoiena. Arotza eta margolaria lanerako gertu. 615 71 02 35.

Debagoiena. Emakume bat gertu dago etxeko lanak egiteko eta haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 941 21 00 07.

Debagoiena. Neska lanerako prest. 620 51 34 25.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. DBHko hirugarren mailako eskolak hartuko nituzke. Neure etxean. 609 39 27 58.

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 635 70 88 88.

Arrasate. Zientzietan lizentziaduna dagoen gazte batek eskola partikularrak emango lizkieke Lehen Hezkuntzako, DBHko edo Batxilergoko ikasleei. Arrasaten edo Aramaion. Telefonoa: 943 79 94 09 edo 669 94 66 13.

Bergara. Esperientzia duen ingeleseko irakasleak eskola partikularrak emango lituzke: mintzaira, gramatika... Maila guztietan. Bergaran edo Arrasaten. 626 53 07 04.

Debagoiena. Enpresa Zientzietan lizentziaduna eskola partikularrak emateko gertu. Baita Kontabilitatea, Matematika, eta abar ere. Maila guztiak. 943 79 09 52.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A3 TDI autoa salgai. 110 ZP. Gehigarri ugari. Oso polita. 629 56 71 76 edo 943 79 73 90.

Citroën Saxo 1.1i autoa salgai. SS-AZ. Oso ondo dago. 677 54 98 94.

Honda CR 125 motoa salgai. 1994koa. 637 52 90 03.

KTM 250 cm³ enduro motoa salgai. 1996an erosia. Telefonoa: 943 76 38 26 edo 656 76 14 03.

Seat Toledo autoa salgai. 1993koa. 140.000 km. 1.200 euro. 652 76 40 31.

Vanette-a salduko nuke. 1988koa, merkea. Telefonoa: 666 08 84 75.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak salgai, Bearded Collie arrazakoak. 651 70 94 32.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Siberiar husky arrazako txakurra galdu zen Mekolalde inguruan, domekan, otsailak 15. Chester izena du. 943 76 26 73.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Eskiak salduko nituzke. Rossignol markakoak. Neurria: 1,60. Garving. Ondo daude. Prezioa: 120 euro. Telefonoa: 686 21 02 23.

Knaus Azur 540 karabana salgai. Oso ondo dago. Finko jartzeko egokia. Prezio ona. 656 75 61 65.

Mahaia salgai, marrazketakoa 1,75X1,1. Teknigrafo eta beso bertikalarekin. Ingeniariendako aproposa. Ondo dago. 120 euro. Telefonoa: 628 14 92 74.

Mendiko bizikleta salgai. Kona markakoa. Rock Shox urkilak. Koadroak eta osagai batzuek 18 hilabete dituzte. 420 euro. 656 71 41 59.

Mikrofonoa salgai. Bateria jotzaileendakoa. Audio Tecnica ATM 75 markakoa. 609 44 86 06.

Musika aparailua salgai. Efektu askotarikoa. SPX 990 markakoa. Oso merke. 609 44 86 06.

Samplerra salgai. Akai S-3000 XL markakoa. Oso merke. 609 44 86 06.

Sukaldea salgai, egurrezkoa, Wansler markakoa. 150 litroko ur depositua. Martxan ipintzeko osagaiak. Bi urte ditu. 666 55 41 12.

803. EMAN

Terapia erregresiboan diplomatutako neska batek doako zerbitzua eskaintzen du. Brian Weiss doktorearekin ikasitakoa. Manoli. 610 64 58 41.

806. GALDU

Aretxabaleta. Domekan, Aratusteetan, Herriko Plaza eta Eroski artean granate koloreko betaurreko graduatuak galdu nituen. Aurkitzen badituzu, deitu. 659 53 50 99.

Aretxabaleta. Otsailaren 15ean, domeka, poltsa txiki beltz bat galdu nuen. Gameboy bat eta joko batzuk zeuden barruan. Aurkitu duenak dei diezadala, mesedez. 635 20 78 98.

Oñatin diru-zorroa galdu nuen astelehenean, hilak 23. Harkaitz. 610 36 39 94.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

AIPAGARRI

Maialen Linazasoro

ARRASATE

Hamahiru urteko arrasatear gazte honek Euskaltzaindiak antolatzen duen poesia lehiaketan hirugarren saria irabazi du, DBHko 1. eta 2. mailakoen artean. *Zure besoetako babesa* izeneko poema aurkeztu zuen. Martxoaren 12an egingo dute sari banaketa; 180 euro jasoko ditu.

Iban Del Campo

ARRASATE



Bilboko *Periferia* topaketetan Iban del Campo arrasatearraren bi dokumental izan dira ikusgai. Otsailaren 24an Del Camporen *Un tal Eusebi* dokumentala ikusteko aukera izan zen Bilborock aretoan. Horrez gain, Ixiar Rozasekin batera egin duen *Gezurren labirintoa* dokumentala estreinatu zuten.

Aitor Arregi

OÑATI

Aitor Arregiren *Saharako maratoia* dokumentala estreinatu zuten hilaren 24an Donostiako Antzoki Zaharrean. Jon Garaño donostiarrarekin batera egin du dokumentala, eta Tinduf-eko kanpalekuetako iheslarien egoeraren berri ematen du. Korrikalari baten istorioa kontatzen du.

HILDAKOAK

Juan Urzelai Angiozar. Eskoriatzan, otsailaren 17an. 62 urte.
Pedro Letamendi Agirre. Oñatin, otsailaren 18an. 87 urte.
Jose Lorenzo Iglesias. Bergaran, otsailaren 19an. 51 urte.
Josefa Urdaniz Goenaga. Arrasaten, otsailaren 19an. 81 urte.
Julia Agirreurreta Iturbe. Arrasaten, otsailaren 19an. 77 urte.
Eduvigis Encinas Garcia. Arrasate, otsailaren 19an. 82 urte.
Dionisia Trojaola Markaide. Aramaion, otsailaren 20an. 84 urte.
Mª Pilar Lopez Oianguren. Bergaran, otsailaren 20an. 84 urte.
Enrique Leon Ortega. Arrasaten, otsailaren 20an. 55 urte.
Alfonso Oiartzabal Agirre. Arrasaten, otsailaren 21ean. 78 urte.
Maria Maritxalar Iñurritegi. Arrasaten, otsailaren 21ean. 91 urte.
Antonio Areitzaga Azpiazu. Arrasaten, otsailaren 22an. 89 urte.
Simon Arana Ibarguen. Arrasaten, otsailaren 23an. 92 urte.
Maxima Txintxurreta. Aretxabaletan, otsailaren 23an. 89 urte.
Roman Lizarralde Elola. Bergaran, otsailaren 24an. 75 urte.
Tomasa Zabaleta Larrañaga. Bergaran, otsailaren 24an. 73 urte.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

Miren Albizu Ferrero
Eibar • Otsailak 14 • 3,000 Kg.
• **Gurasoak:** Iñaki Albizu (Eibar) eta Maria Ferrero (Eibar). Argazkian haurra bere ama Mariarekin batera.

Amaia Urmeneta Markuleta
Oñati • Otsailak 14 • 3,080 Kg.
• **Gurasoak:** Jabi Urmeneta (Beasain) eta Ainhoa Markuleta (Oñati). Argazkian umea bere gurasoekin batera.

Aritz Zabala Cooper
Arrasate • Otsailak 14 • 2,590 Kg.
• **Gurasoak:** Imanol Zabala (Arrasate) eta Helen Patricia Cooper (New Castle). Argazkian haurra bere gurasoekin.

Ander Altzelai Santakurtz
Oñati • Otsailak 18 • 3,150 Kg.
• **Gurasoak:** Juan Ignacio Altzelai (Oñati) eta Agurtzane Santakurtz (Oñati). Argazkian umea bere amarekin.

Kattalin Bizkarra Mendizabal
Abadiño • Otsailak 18 • 2,200 Kg.
• **Gurasoak:** Aitzol Bizkarra (Abadiño) eta Saioa Mendizabal (Arrasate). Argazkian umea amaren besoetan.

Nagore Sasiain Herrera
Arrasate • Otsailak 19 • 3,100 Kg.
• **Gurasoak:** Aitor Sasiain (Arrasate) eta Esther Herrera (Arrasate). Argazkian umea bere amarekin.

Ibai Zubia Biteri
Arrasate • Otsailak 20 • 3,100 Kg.
• **Gurasoak:** Xabier Zubia (Arrasate) eta Itziar Biteri (Arrasate). Argazkian haurra bere osaba Josurekin batera.

Beñat Iñurrategi Lasagabaster
Bergara • Otsailak 20 • 3,425 Kg.
• **Gurasoak:** Alberto Iñurrategi (Aretxabaleta) eta Ane Lasagabaster (Arrasate). Argazkian umea lotan.

Urko Perez Irazabalbeitia
Arrasate • Otsailak 23 • 3,200 Kg.
• **Gurasoak:** Jose Miguel Perez (Arrasate) eta Leire Irazabalbeitia (Arrasate). Argazkian haurra bere aita eta amarekin batera.



Helena Horrillo Sierra
Bergara • Otsailak 22 • 3,256 Kg.
• **Gurasoak:** Jose Horrillo (Bergara) eta Manoli Sierra (Bergara). Argazkian haurra bere ama Manoliren besoetan.

ESKER ONA

Daniel
Lasagabaster Arratibel
(marianista)

Zaragozan hil zen
2004ko urtarrilaren 21ean,
94 urte zituela.

†

Haren aldeko elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Juantxo Urbieta eta **Arantxa Atxa** bergararrek hogeita bost urte egingo dituzte ezkonduta datorren martxoaren 3an. 1979ko martxoaren 3an ezkondu ziren Itziarko Santutegian. Asteazkenean familia osoarekin ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko otsailaren 27a

HITZGEZIDUNAK

Luma



Musika tresna / Gaixoa — Alaitasun / * Izena — Itxarote
Arma zorrotza / Egite txar
Are gehiago / Hatzetako apaingarri — Nafarroako herria / * Deitura — Laugarren bokala / Zein unetarako
Saiatzera behartu
Abere-talde / Mikel ..., kantaria — Diru / Ahoz aho
Abantzu / Erbioa
Letra izena / Borborrean — Eskolatu / Ugatz
Burusoilak — Daukat / Eguneroko jangai — Zakur / Aho-gaixotasun
Angstroma / Torioa
Gramoa / Harro — Ugari / Bigarren bokala
Maiztasun adierazteko partikula

BILABILA7





UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

'TANTUM ERGO' KANTATZEN

Plaentxiako gaixo bat Artadi medikuakin tratamenduan zebilen. Baiña, bitxartian, kurandero baten esanak be jarraitzen zebazen.

Horrela gauzak, egun baten eta ustegabian, sartu da Artadi jauna gaixuan etxian ta an nun ikusten daben gure gaixua kuadro guztia keiakin beteta, intzientzuaren lurrunak artzen. A ikusitxa, zer egin zeban medikuak? Belaunikatzen zan itxura egin eta Tantum ergo kantua kantatzen etxetik urten.

KOMUNERA KORBATIAKIN

Goizeko iruretan eldu da Urlixa etxera. Berandu danez, ixil-ixilik erazten asi da, oian sartzeko andria konturatu barik. Onetan, baiñan, esnatzen da andria:

- Gizon, onek dira etxera etortzeko orduak!

- Ixildu zaitxez, andra. Ni ordu bixan be etxian nago. Komunera jaiki naiz.

- Barkaidazu, gizon, baiñan enekixan komunera juateko korbatia jazten zendunik.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Debagoieneko zein herritan daude bi zuhaitz berezi?

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko hainbat arbola 'zuhaitz berezi' izendatuak ditu. Horietako bi, sekuoia bat eta magnolia bat, Debagoienean daude, bi jauregi ezagunen ondoan. Sekuoiak 38 metroko altuera du eta magnoliak 26koa. Asmatuko ote zenuke zein bi herritan dauden zuhaitzok?

- Oñatin eta Bergaran.
- Oñatin eta Aretxabaletan.
- Bergaran eta Arrasaten.
- Arrasaten eta Oñatin.

Erantzun zuzena: Sekuoia Arrasaten (Monterron parkean) eta magnolia Bergaran (Olaso Dorreko —Monzonen Jauregia— lorategian).

SOLUZIOAK





●	A	●	O	S	●	O	
E	R	A	Z	T	U	N	●
●	E	L	I	●	S	O	S
L	A	B	O	A	●	I	A
●	G	E	●	H	E	Z	I
B	O	R	B	O	R	K	A
●	●	D	U	T	●	O	R
S	O	I	L	A	K	●	A
●	G	●	A	N	I	T	Z
F	I	E	R	●	O	H	I

ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Barru-barruan sentitzen duzuna eta kanpotik esaten dizutena ez datoz bat. Edozelan ere, ahalegin zaitez kontsekuente izaten, eta joka ezazu barruan sentitzen duzunaren arabera.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Komunikatzeko gaitasuna eta harreman onak. Horiek ondorio argia dakarte: hobekuntzak lanean. Oso une aproposa da akordioak egiteko. Edozelan ere, familiakoekin arazoak izango dituzu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Lanez gainezka zabiltza. Hasiera baten kantsatuta eta estresatuta ibiliko zara, baina epe luzera hobekuntzak ekarriko dizkizu lanean.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Bikotekideak utzi egingo zaitu, aspaldiko lagun batekin abentura bat izango duzu-eta. Bikotekiderik ez baduzu, pertsona berezi bat ezagutuko duzu. Bestalde, zaindu eztarria.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Diru sarrera estra izango duzu, zorizko jokoetan irabazita edo aurretik kobratu barik zeneukan lan bat kobratuta. Edozelan ere, gastatu eta gastatu besterik ez duzunez egiten, arazo ekonomiko larriak izango dituzu.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Jeneralean oso zorrotza zara desordenarekin, baina oraingo astean bereziki, maniatiko huts bilakatuko zara, bai etxean bai lanean. Horren ondorioz, eztabaida biziak izango dituzu ingurukoekin.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Jakingo bazenu zer gura duzun, lortuko zenuke, seguru. Arazoa da nahastuta zaudela, eta egiten duzunak ez daukala ez hanka ez buru. Horrenbestez, ahalegin zaitez egun batzuk hartzen, hausnartzeko.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Bikotekidearekin inoiz baino hobeto zaude, baina ez utzi alde batera bizitzako beste alderdi batzuk, batez ere lana. Bestalde, dirua xahutzeko joera izango duzu asteon.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Oso une aproposa da edozein motatako inbertsioak egiteko. Bestalde, arazoak izango dituzu semealabekin, ez dizute-eta kasu handirik egingo. Azkenik, tripako minez ibiliko zara.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Familiako ardurei kasurik egin ez eta, lanean jardungo duzu buru-belarri. Horren harira, lankidetza profesionalak ez dira batere egokiak izango. Baina ahalegin zaitez optimista izaten.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Lanean aldaketak izango dira, eta zure onerako. Denak izango dira onurak. Lagunekin oso une patxadatsu eta erlaxatuak bizi izango dituzu, eta haiekin dituzun gaizkiulertuak konpontzeko modurik egokiena izango dira.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Dauzkazun beharrak eta ideiak lanean aditzera emateko aukera izango duzu. Bestalde, pertsona batek baino gehiagok zuregana joko du, aholku eta laguntza bila.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

ZAPATUA, 28

Egun lainotsua izango dugu eta euria egingo du. 300 metrotik gora, gainera, elurra egin dezake. Tenperaturak behera egingo du. Haizea, berriz, iparmendebaletik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Lainotsu.
Errioxa: Lainotsu.
Pirinioak: Lainotsu.

DOMEKA, 29

Domekan ere egoera berdintsua izango da; elurra egingo du 300 metrotik gora; izotza ere egingo du. Tenperaturak gora egingo du pixka bat. Haizea iparmendebaletik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Lainotsu.
Errioxa: Lainotsu.
Pirinioak: Lainotsu.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

5,9º C

ILARGIAREN ALDIAK: OTSAILA

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
6	13	20	28

EGUZKIA: OTSAILAREN 29A

Sortu 07:46 · Gorde 18:56

URKULUKO URTEGIA

Azkeneko aste honetan eguraldi kaxkarra izan dugu, baina urtegiaren ur mailak ez du asko gora egin: aurreko astean %86,35 zen; oraingo astean, berriz, %86,41.

% 86,4

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 53 47 20
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

GOITB	943 71 23 96 • goitb@ goiena.com
Goienkaria	943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com
Arrasate Press	943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com
Berrigara	943 76 03 97 • berrigara@goiena.com
Aretxagazeta	943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com
Goibekokale	943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com
Kontuola	943 76 03 97 • kontuola@goiena.com
Txirritola	943 71 25 11 • txirritola@goiena.com
Ze barri?	943 79 86 21 • zebarri@goiena.com
Kontzejupetik	943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Putz	943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Arrasate Irratia	943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Oñati Irratia	943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Sustatu.com	943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde hauen laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza

Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Aretxabaletako Udala
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Elgetako Udala
Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Oñatiko Udala

'Asteleheneko Goienkaria' Astelehenero kalean!

DEBAGOIENA. Aste bukaeran gertatutako guztia, inork baino lehenago eta sakonago.

KIROLA. Gure kirol taldeek jokatutako partiduen kronikak, sailkapenak, emaitzak...

KULTURA. Musika eta antzerki ekitaldi nagusien kronikak, erakusketak, deialdiak...

Harpidetuz gero, etxean: **0,6 euro***
Egunkari saltokietan: **0,8 euro**

*Urte osoko harpidetza: 25 euro

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

ETA GEHIAGO... Iritzia, zerbitzuak, telebista....



'Astebete'

EGUBAKOITZA, 27 / **20:30 eta 22:30**

Eguraldiaren gaineko solasaldia Pello Zabalarekin

Egunotako giro txarraren gainekoak izango dituzte hizpide gaur *Astebete* saioan. Gaiaren inguruan aditu Pello Zabalarekin egingo du solasaldia Goiatz Arana kazetariak. Astebururako zer-nolako giroa espero den ere aurreratuko du Pellok.

Derbia

DOMEKA, 29 / **19:30**

Aloña eta Aretxabaleta aurrez aurre Azkoagainen

Partidu interesagarria jokatuko dute oraingo domekan Aloña Mendik eta Aretxabaletak. Biak ere sailkapeneko goiko postuetan daude puntu bakarraren aldearekin. GOITBk 19:30ean emango dizue partidua etxean ikusteko aukera.

'Iragana gogoratuz'

MARTITZENA, 2 / **21:15 eta 23:15**

Lihoaren, ehunaren eta ehungileen ingurukoa

Garai batean lihoa ereiten zuten baserrietan, ehuna lortzeko. Lihoarekin haria egindakoan, ehuleari eramaten zioten ehuna egiteko. Ehunarekin, gero, arropak egiten zituzten. Horren ingurukoa izango da *Iragana gogoratuz* saioa.

'Iluntzean'

EGUENA, 4 / **21:15 eta 23:15**

Idoia Zenarrutzabeitiari elkarrizketa 'Iluntzean'-en

Aintzane Gardoki kazetariak euskal gobernuko politikari garrantzitsu bat izango du aurrez aurre *Iluntzean* saioan; Idoia Zenarrutzabeitia lehendakariordea. Hitzordua, betiko moduan, eguenean izango duzue.

TELEBERRIAK

Zinema eskaintza zabala izango du ETBk datorren hilean

Euskal Telebistak kalitatezko zinema emateko asmoa du martxoan. Oscarrak irabazi dituzten *Hannibal, Limite Vertical* eta *Todos los caballos bellos* pelikulak emango dituzte, besteak beste. Pelikula arrakastatsu horiek ETB1eko *Zine Oro*-n eta ETB2ko *Cine Sin Cortes* saioan emango dituzte. Bestalde, ETB2ko *Siempre Cine* saioan sariren bat jaso duten pelikulak emango dituzte, egunero, arratsaldez.

Albistegietako behin-behineko batzordea sortu dute TVEn

Duela urtebete, TVE barruan Manipulazioaren Aurkako batzordea sortu zen. 2002ko ekainaren 20ko greba, Irakeko gerra eta *Prestige*-ren hondamendiaren jarraipena izan ziren batzordea sortzeko arrazoi nagusiak. Urtebeteko lanaren ondoren, hauteskundeak egin zituzten Albistegietako Behin-Behineko batzordea eratzeko. Informatzailearen estatutua egingo dute, independentzia, objektibotasun eta pluraltasun bila.

'Bihotzeko programak' gehien ikusten dituztenak, euskaldunak

Audientzia datuen arabera, Tele5eko *Aqui hay tomate* saioa Espainiako herrialdeetan baino jende gehiagok ikusten du EAEn. Zenbat eta gehiago sartu norbaiten bizitzan, orduan eta gehiago jarraitzen dute saioa euskaldunek.

ASTEKO PROGRAMAZIOA/ Otsailaren 27tik martxoaren 4ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA, 27	ZAPATUA, 28	DOMEKA, 29	ASTELEHENA, 1	MARTITZENA, 2	EGUAZTENA, 3	EGUENA, 4
13:30 **Gatza eta berakatza** 14:00 **Sarrera doan** 14:30 **Berriak** 15:00 **Iluntzean** 15:30 **Berriak** 16:00 **Gatza eta berakatza** 16:30 **Emisio amaiera** 19:45 **Gatza eta berakatza** 20:00 **Berriak** 20:30 **Astebete** 21:00 **Gaurkoak** 21:15 **Soinuz blai** 21:45 **Gatza eta berakatza** 22:00 **Berriak** 22:30 **Astebete** 23:00 **Gaurkoak** 23:15 **Soinuz blai** 23:45 **Emisio amaiera**	13:30 **Astebete** 14:00 **Soinuz blai** 14:30 **Txintxaun** 15:00 **Herriz herri: Oñati** Andoni Gartzia Oñatiko alkatea elkarrizketatu zuen Alberto Gorritibereak. 16:00 **Sarrera doan**. 16:30 **Jaiak: Aratusteak 2004** Kepa Errasti eta Oihan Vega izan genituen Aretxabaletako Aratusteetan. 17:00 **Harmailatik:** GOITBko kameralariak Anoetan izan ziren Realaren eta Lyonen arteko partidua grabatzen. 17:30 **Emisio amaiera**	13:30 **Astebete** 14:00 **Soinuz blai** 14:30 **Txintxaun** 15:00 **Herriz herri: Oñati** Andoni Gartzia Oñatiko alkatea elkarrizketatu zuen Alberto Gorritibereak. 16:00 **Sarrera doan**. 16:30 **Jaiak: Aratusteak 2004** Kepa Errasti eta Oihan Vega izan genituen Aretxabaletako Aratusteetan. 17:00 **Harmailatik:** GOITBko kameralariak Anoetan izan ziren Realaren eta Lyonen arteko partidua grabatzen. 17:30 **Emisio amaiera**	13:30 **Gatza eta berakatza** 14:00 **Astebete** 14:30 **Berriak** 15:00 **Soinuz blai** 15:30 **Berriak** 16:00 **Gatza eta berakatza** 16:30 **Emisio amaiera** 19:45 **Gatza eta berakatza** 20:00 **Berriak** 20:30 **Harmailatik** 21:00 **Gaurkoak** 21:15 **Aloña-Aretxabaleta laburpena** 21:45 **Gatza eta berakatza** 22:00 **Berriak** 22:30 **Harmailatik** 23:00 **Gaurkoak** 23:15 **Aloña-Aretxa baleta laburpena**	13:30 **Gatza eta berakatza** 14:00 **Harmailatik** 14:30 **Berriak** 15:00 **Aloña-Aretxabaleta laburpena** 15:30 **Berriak** 16:00 **Gatza eta berakatza** 16:30 **Emisio amaiera** 19:45 **Gatza eta berakatza** 20:00 **Berriak** 20:30 **Iragana gogoratuz** 21:00 **Gaurkoak** 21:15 **Lanabesak** 21:45 **Gatza eta berakatza** 22:00 **Berriak** 22:30 **Iragana gogoratuz** 23:00 **Gaurkoak** 23:15 **Lanabesak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:30 **Gatza eta berakatza** 14:00 **Iragana gogoratuz** 14:30 **Berriak** 15:00 **Lanabesak** 15:30 **Berriak** 16:00 **Gatza eta berakatza** 16:30 **Emisio amaiera** 19:45 **Gatza eta berakatza** 20:00 **Berriak** 20:30 **Txintxaun** 21:00 **Gaurkoak** 21:15 **Soinuz blai** 21:45 **Gatza eta berakatza** 22:00 **Berriak** 22:30 **Txintxaun** 23:00 **Gaurkoak** 23:15 **Soinuz blai** 23:45 **Emisio amaiera**	13:30 **Gatza eta berakatza** 14:00 **Txintxaun** 14:30 **Berriak** 15:00 **Soinuz blai** 15:30 **Berriak** 16:00 **Gatza eta berakatza** 16:30 **Emisio amaiera** 19:45 **Gatza eta berakatza** 20:00 **Berriak** 20:30 **Sarrera doan** 21:00 **Gaurkoak** 21:15 **Iluntzean: Idoia Zenarruzabeitia** 21:45 **Gatza eta berakatza** 22:00 **Berriak** 22:30 **Sarrera doan** 23:00 **Gaurkoak** 23:15 **Iluntzean:** 23:45 **Emisio amaiera**
21:15 **Soinuz blai**			21:15 **Derbiaren laburpena**	20:30 **Iragana gogoratuz**	20:30 **Txintxaun**	21:15 **Iluntzean**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERA AURREAN

"Oñatiko Udalak duela 12 urte egin zuen ur jauziekin energia berdea lortzeko apustua, eta emaitzak onak izan dira. Ustiaketa horrek 550 mila euro ematen dizkio urtean Udalari".

Andoni Gartzia / Oñatiko alkatea
'Goienan, Herriz herri' (2004/02/24)

"Natur Eskolan umeekin egiten dugu lan, eta, beharbada, nagusiak ez dira horrenbeste hurbiltzen. Ingurumen Astean, horiei ere ateak zabaldu gura dizkiegu".

Jon Betanzos / Oñatiko Natur Eskolako kidea
'Sarrera doan' (2004/02/26)

TELEBEGI/ Unai Loidi

Reallity

ETBko *Barnetegia* eta Tele5eko *Gran Hermano VIP*-en artean alde handiak daude, baina mota bereko programak dira. Eta horrekin neu ere konturatzen naiz, bata ere ez ikusi arren. Antena 3k gaztelu baten sartuko dituen *freaky* "esoterikoekin" egingo duten programa ere ez da urrun ibiliko; eta Amazoniako oihanean dabiltzan famatuekin egiten dutena ere familia berekoa da. Singapurren hasteko ei den horixe beterik ez zaigu falta orain: hamar bikote sartu etxe batean, eta ea nor gelditzen den lehenago haurdun.

Zorionez, zenbait telebista-genero norberaren gustuko ez direla jakiteko, ez dago ikusi ere egin beharrik. Telebista *reallity* edo tankera honetako programaz bete zenetik, Amazoniako tximinoen zorriketari buruzko dokumentalak eta antzekoak, bazkalostean ematen diren horiek, gusturago ikusten ditut. Komunitate errealak dira behintzat, eta portaera sozial erreala erakusten dute.

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

Eskaintza
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak
- Bildotsa labean erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Zuhaizti jatetxea

Espoloia 6 / BERGARA
943 76 59 22

Eskaintza
- Eguneko menua, aste barruan
- Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan

Berezitasunak
- Etxeko postreak

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2004ko otsailaren 27a

Atzeskua

USOA AGIRRE

Juan Kruz Agirrezabal/ Baserritarra

Urte asko daramatzazu sagardoa egiten.

Bai, badira 75 bat urte. Hamar urte nituenean hasi nintzen, eta orain arte.

Baina, entzun dudanez, orain begira egoten zara.

Egia esan, orain ez naiz sagardoa egiten aritzen. Badaude horretarako gazteak; ni besteek nola egiten duten begira egoten naiz.

Gogoratuko zara, bada, nola egiten den?

Sagarrak ondo heldutakoa izan behar du eta ganbaran gozatzen eduki behar da lehenengo. Gero makinan jo egiten da sagar hori eta dolarean ordu batzuetan edukitzen da gozatzen. Denbora hori pasa eta gero, guztia estutu eta zukua ateratzen zaio sagarrari. Kaxa batera eramaten dugu txikitutako sagar guztia, han beste ur pixka batekin eduki eta berriz ere dolarera. Dolaretik berriz zukua atera kupelera gero.

Kupelak, baina, ez dira lehen bezalakoak.

Ez. Lehenago zurezko kupelak genituen, baina gaur egun altzairu herdoilgaitzezko kupelak ditugu. Konparatu ere ezin da egin lehengo sagardoa eta oraingoa: lehen zikin asko izaten zuen; orain, berriz, kupel berri horiekin ez da zikinik egiten.

Baina dolarea aspaldikoa duzue.

Bai. Duela 170 urte erosi zuten etxekonekoek. Gure etxekoak haiekin sozio egin ziren, tratuan ardiak emanda. Ez zuten dirurik nahi izan, ardien beharra zuten.

Zenbat litro sagardo egiten dituzue orain?

1.200 bat botila betetzen ditugu. Baina kontuan eduki behar da bi urtean behin egiten dugula sagardoa, baserri inguruko sagarrondoek bi urtean behin ematen baitute fruitua. Jendeari ere botila asko ematen dizkiogu, eta azkenean guretzat ez da askorik gelditzen.

Sagardoa ala ardoa nahiago?

Nik nahiago dut ardoa edan. Egarri handia baldin badaukat edaten dut sagardoa, baina, gainontzean, nahiago ardoa. Gure etxeko gazteek gustura edaten dute sagardoa; erretegi moduko bat ere egin dute baserrian beraien lagunekin bazkari eta afariak egiteko.

Sagardoa egiteko, sagarrak ere ona izan behar du.

Gure baserri inguruan oso sagar ona dugu eta mota askotakoa. Zenbat eta sagar mota gehiago nahastu, orduan eta hobea irteten du sagardoak. Errezil-sagarrak oso ukitu ona ematen dio sagardoari.

Zenbat gradutan botilatzen duzue sagardoa?

Gradu erdian botilatzen dugu. Gradu bat duela botilatuz gero, hobea egoten da edateko, baina kortxoa airean irteteko ere posibilitate handiagoa egoten da.

Kupeletik ala botilatik nahiago?

Nahiago dut sagardoa botilatik edan, hobea egoten da botilakoa.

"Sagarrak ondo heldutakoa izan behar du eta ganbaran gozatzen eduki behar da"

"Lehenago zurezko kupelak genituen, baina orain altzairu herdoilgaitzezkoekin sagardo hobea egiten da, zikinik gabea"

"Egarri handia edukiz gero edaten dut sagardoa, baina nahiago dut ardoa edan"

► *Antzuola / 84 urte / Sagardoa egiten dute baserrian*

PIPERRAUTSA

Editoriala

Ildo editoriala esaten zaio hedabide baten pentsamoldeari. Prentsan, artikulu editorialak erakusten du espresuki hedabidearen jarrera gai baten aurrean. Hau joaten da toki berezian, *Editoriala* izenburupean, eta sinadurarik gabe. Beste tresna editoriala izan ohi da *Zuzendariaren gutuna*. Kasu honetan artikulua sinatuta doa, baina editorialtzat jotzen da azaltzen duelako zuzendariaren iritzi ofiziala. Hortik aurrera, zeharkako zantzuetan topatu behar da hedabidearen ikuspegia: gaien eta iritzien aukeraketa, gaien trataera edo erabilitako hiztegia eta esamoldeak.

Goiko guztia ekarri dut ondokoa adierazteko: *Piperrautsa* ez da GOIENKARIAren editoriala. Nire izenarekin sinatuta doa eta neu naiz erantzule bakarra. Argi gera bedi hau, zutabea erreakzioak eragiten hasi den honetan.

Izan nintzen Goienako zuzendari nagusia eta, karguari zor, ez nuen iritzi pertsonalik isuri inongo foro publikotan. Kargua utzi nuenean, duela ia hiru urte, berreskuratu nuen askatasuna. Eta askatasunetik ari naiz, hemen eta edonon.

Urre gisa gordetzen dut Goienako lankide ohiekin harremana. Badakite lagun nautela, eta adiskide. Baina *Piperrautsa* idazteko ez diet iritzirik eskatzen, ez haiek ematen. Bere akats eta bertute, zutabe hau bakarrik egiten dut, barrenetik. Hemen esandakoez ez eskatu konturik beste inori. Hau ez da editoriala.

MIKEL IRIZAR

Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51